



ARGIA

***“Erronka handia dugu
espazioak gal ez daitezen”***

**Idoia Trenor eta
Jon Agirresarobe
Bertsozale Elkarteko
koordinatzaile
berriei elkarrizketa**

22-27. orriak

#2.705 | 2020 / 10 / 25 | 3,90 €



***"Ez da posible rock
munduak hain
gerra gutxi ematea"***

12 | EL DROGAS



***Euskara hutsezko
murgiltzea aurrera
Hiriburuko eskolan***

38 | EUSKARA



***Pandemiaren
kolpea arte
eszenikoetan***

44 | KULTURA

Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



Landareak etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!



25€

Orri kop.: 248

EROSTEKO

argia.eus/azoka

9433 7 15 45

 **ARGIA**
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | ENDIKA ALABORT
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | ENEKO GORRI
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | ANA MENDIA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGİ-KONTRA:
KATI LEATXE ARISTU
- 58 | BERANDUEGI

DANI BLANCO



12 | ENRIQUE VILLAREAL

El Drogas elkarriketatu du Reyes Ilintxetak. Bere ibilbideari eta egungo hamaika gai soziali erreposoa egin die, ahobizarrik gabe.

Elkarrizketak eta erreportajeak

- 10 | NET HURBIL
Supremazia zuriaren gaitza azaleraturik dute AEBetako hauteskondeek
Jenofa Berhokoirigoin
- 22 | KULTURA | BERTSOZALE ELKARTEA
“Plazak seguruak dira eta bertsolariak ordaina behar du”
Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 28 | HISTORIA | ARABAR ERRIOKA
Botere-jokoak mahastien inguruan
Josu Narbarte Hernandez
- 30 | POLITIKA | JUNE FERNÁNDEZ
“Gizarte Sailera kondenatuta gaude, horixe baita gizon zuri burgesak ez direnen istorioen zakua”
Amaia Lekunberri Ansola

- 34 | NAZIOARTEA
Lehertu da berriro Armenia eta Azerbaijanen arteko guda zaharra
Oier Zeberio
- 38 | EUSKARA
Herritarren eta hautetsien presioak eragina izan du Hiriburun
Malen Aldalur Azpillaga
- 44 | KULTURA
Antzerkiaren hauskortasuna agerian
Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Eizagirre, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdı, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Sinbologiaren indarra

Urriaren 12a igaro da. Hispanitatea, arraza eta garai bateko loriaren eguna batzuentzat, erresistentziaren eta dekolonitatearen lehen eguna beste batzuentzat. Garai horretako protagonista batzuekin lotuta, espazio publikoan zenbait ekintza egin dira Euskal Herrian. Horietako bat Migratuen Nafarroako Mugimenduak egindakoa da: Iruñean Armendaritz eta Ursua euskal kolonizatzaileen kaleak berrizendatu ditu. Bati Goree Irla izena eman diote, 300 urtez esklaboek merkatu handia izan zena ahanzturan geratu ez dadin. Estatuak eraitsi edo kaleen izena ezabatzean, helburua ez baita historia ezabatzea edo ezkutatzea. Inork ezin baitu aldatu milaka euskaldunek (gehienak anonimo) gorputzen desjabetzearekin egin dugula aurrera itsasoetan barrena, kapitalismoaren sorreraren historian protagonista izan garela. Ez. Memoria da jopuntua. Oraina aldarazteko akuilu den memoria.

PANDEMIAREN HEDATZEA MUGATZEKO, NEURRI BERRIAK HARTU DITU EUSKO JAURLARITZAK EAE-N



**METROAN ETA AUTOBUSEAN
ERE SEINAKA, EZTA?**

@enekogara



**ZE NEURRI DA
OSTALARITZAREN
ORDUTEGIA 01:00ETATIK
00:00ETARA AURRERATZEA?
JAURLARITZAREN
“EZ NEURRIAK”**

@MikelGomezGar



**JAURLARITZAK ERABAKI
DU KIROL EZ FEDERATUKO
LEHIAKETAK DEBEKATZEA,
EZ ORDEA FEDERAZIO
PRIBATUETAKOA. KUOTA
ORDAINDU DEZAKETENAK
EZ AL DIRA KUTSATZEN? ALA
PUBLIKOAN INBERTITZEA
BAINO EROSOAGOA DA
HERRITARRAK EREMU
PRIBATURA BIDERATZEA?**

@mikelgi



**NEURRI DRASTIKOAK?
NEURRI HUTSALAK DIRA,
BATZUK ZUZENEAN
ERRIDIKULOAK, ADIBIDEZ
HAUR-PARKEAK GAUEKO
11ETAN IXTEARENA.
POSTUREO GARBIA DA,
ZERBAIT EGITEN ARI DIREN
ITXURA EMATEKO**

@Holmes_Beatriz



Akordioa Gipuzkoako metalgintzan

ARGIA

Adegik eta Gipuzkoako metalgintzako sindikatuen gehiengoak “akordio historikoa” lortu dute lan-hitzarmen berria sinatzeko. Orain arteko patronalak soldaten, ultraaktibitatearen edota subrogazioaren inguruan onartutako neurriez gain, Berdintasun Batzordea martxan jartzea ere adostu dute, besteak beste. UGT izan da kanpoan geratu den sindikatu bakarra. Besteak beste %9,6ko soldata igoera aurreikusten du hitzarmen berriak 2020 urtera arte eta KPIaren arabera igoera hortik aurrera.

Gipuzkoako metalgintzako hitzarmenak 50.000 langileri eragiten die eta lurraldeko garrantzitsuena da zentzu horretan; baina hamar urte zeraman berritu gabe. ELAk urriaren 2an babesturiko proposamenean enpresariak igoera nabarmenak onartu zituzten soldatetan, baita beste neurri ugari ere, hala nola lan erreformaren kontrako blindajea, azpikontratazioen subrogazioa, behin-behineko urtebeteko gehienezko kontratazioak... LABek ordea hutsuneak ikusten zituen oraindik, besteak beste berdintasunari edo osasunari begira.

Negoiazioak hankaz gora geratzeko zorian izan dira azken bi asteetan, Adegik mehatxu egin eta gero proposamena egun batzuen buruan erretiratu egingo zuela. Baina azkenean urriaren 14 honetan lortu du akordioa sindikatuen gehiengoarekin, besteak beste Berdintasun Batzordea martxan jarriko duela hitzemanaz, 2006an abiatu baina sekulan aktibatu ez den organo bat. “Soldata arrakalarekin bukatu edota emakumeen kontratazioa bultzatzeko” tresna izango dela ziurtatu du LABek, azken bileran orain arte ez zeuden beste neurri batzuk ere onartu direla gogoratzeaz gain –tartean lan ordutik kanpoko errekonozimendu medikuaren kostuak enpresak asumitzea-. “Beraz, pozik eta harro gaude, borrokan jarraitzeak merezi izan du”.

ELA ere pozik agertu da adostutakoarekin. Bere esanetan, beste sindikatuek bat egin dute aurrez berak ontzat emandako eduki nagusiekin eta horrek agerian uzten du akordioaren “garrantzi historikoa”. Sindikatuak azaldu duenez, akordioak “ikuspegi estrategikoa” eta “epe luzekoa” du eta aitzindari edo erreferentziala izan daiteke. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Duras gara



ARITZ GALARRAGA

Maitalea eleberria idazteagatik da batez ere ezagun Marguerite Duras: Indotxinan igarotako gaztaroari buruzko kontakizun autobiografikoa, zeinean neskato zuri nerabe baten eta amorante txinatar helduago eta aberatsago baten arteko amodiozko harremana azaltzen den, eskandalu bat. Baina ez zen izan sakonki markatu zuen nerabezaroaz idazten zuen lehen aldia. Arte kateko dokumental bati esker jakin dut: 1950ean jada ukitu zuen Frantziako kolonian bizi izandako iragan familiar mingarria, *Un barrage contre le Pacifique* nobelan. Inperioaren harribitxia zena burdel handi batekin konparatzen zuen bertan. Noski ez zuen Goncourt saria irabazi. *Maitaleak* bai 1984an –eta beste batean hitz egingo dugu sariek literaturarekin duten zerikusi urriaz–.

Un barrage, beraz, kolonialismoaren kontakizun ofizialaren oso bestelakoa, atzeko aldea erakusten du, esplotazio sistema basatia. Amak fortuna egin nahian lur batzuk erosi, aurrezki guztiak xahutu, eta kultibagarri ez direla ohartzen da. Zorrak, infernuetara jaitsiera. Zuri pobreak bilakatu ziren. Eskala kolonialean beheko mailan zeuden. Indigenen mailan ia. Ia. Nahiz eta pobreak izan morroi-neskameak baitzituzten, bistan da indigenak, sukaldari bat eta txoferra. Gizonezko batzuek esklabo sexual gisa ere hartzen zituzten emakumeak –baina hori ez zen eskandalua, *Maitaleak* harremana bezala–. Eta Durasek, kolonialismoa eta injustiziak salatu arren bere idatzietan, ezin izan zien ihes egin estereotipoei. Kolonizatuak nola ikusten zituen ez dakigu, ez dute izenik ere bere eleberrian, bloke monolitiko bat dira indigenak, ikuspuntu mendealdar bat du asiarrekiko, ez daude haragiztatuta. Bien bitartean, euskaldunok omen gara Europako azken indigenak. Ez dakit ba. Euskaldun –eleantiz–, ar –biologiak hala dioelako–, hetero –edo–, zuri –hori bai, oso zuri– gisa, esango nuke, ezer izatekotan, Duras garela gehienara, ez inolaz ere indotxinar. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

“DISIDENTZIA POLITIKOA ZIGORTZEN DUTEN LEGEAK DAUDE”

ELVIRA SOUTO, ESKUBIDE ETA ASKATASUNEN DEFENTSARAKO BEHATOKI GALIZIARREKO KIDEA

Galiziako independentismoaren aurkako makroepaiketa egin berri da Madrilgo Auzitegi Nazonalean. Causa Galiza eta Ceivar antolakundeetako hamabi militante independentista epaitu dituzte, terrorismo delituak egotzita, legezkoak eta publikoak izan diren jardueretan oinarrituz. “Errepresioa beti da horrelakoa, gaur zuri tokatzen zaizu eta bihar niri. Ziurrenik Euskal Herriko aletogia amaitu zitzaientean, pentsatu zuten, goazen Galiziatik osteratxo egitera. Sinesgaitza baita pertsona eta elkarte hauek prozedura honetan inputatuta egotea. Hemen ez dago ezta jarduera biolentorik ere.” **ARGIA.EUS (2020/10/16)**



Aita Santuaren inkoherentziak



JUAN MARI ARREGI

Frantzisko Aita Santuak, toki askotan hain errespetatua den Eliza Katolikoaren buruak, mundu guztiari zuzendutako gutuna argitaratu du: *Fratelli tutti* ("Anaiak denok"). Batzuek alderdi positiboak goraipatuko dituzte, baina hemen, bere inkoherentziei erreparatu beharrean gaude. Globalizazio kapitalistaren ondorioak salatzen ditu, eta, hala ere, ez du aipatzen eta gutxiago gaitzes-ten ondorio horiek sortzen dituen sistema kapitalista. Elizak ez zuen arazorik izan marxismoa eta komunismoa gaitzes-teko. Kapitalismoa, ordea, ukiezina da, kudeatzaile katoliko asko sistema horretan kokatzen baita.

Frantziskok berdintasunaz, anaitasunaz, ondasunen banaketaz, pobreen eta migratzaileen harreraz hitz egiten du, baina ez ditu ideia horiek Elizan aplikatzen. Felix Placer teologo euskaldunak ere, nahiz eta eskutitzari alderdi positiboak aitortu, inkoherentzia hori aipatu du *Garan*. Aita Santuak "munduko anaitasunaren zerbitzura" dauden erlijioez hitz egiten duenean, Placerrek dio aipamen berezia egin ziezaiokeela Eliza katolikoari, "non anaitasuna bere esparru guztietan berreskuratu behar den, horietako batzuek berdintasunarekin eta justiziarekin baino, distantzia hierarkikoarekin, emakumeen bazterkeriarekin (...) eta lege interesatuetan oinarritutako immatrikulazioekin zerikusi gehiago baitute".

Placerrek salatzen dituen "lege interesatu" horiek Espainiako lege frankistak dira, José María Aznarren gobernuak sostengatu eta ondorengo gobernu sozialistek mantenduak. Espainiako Estatuak Elizak 30.000 ondasun publiko baino gehiago bereganatu ditu (parkeak, frontoiak, plazak, etxeak, katedralak, hilerriak, basilikak...), eta horietatik 5.000 baino gehiago Hego Euskal Herrian daude. Aita Santuak munduarentzat doktrina azaltzen du, baina lehenik koherente izan beharko luke, bere burutik eta bere Elizatik hasita. ●



DANI BLANCO

Lerratuak... Beldurra ematen du

XABIER LETONA BITERI

Donostia, irailak 14, Bingen Zupiria Kultura sailburua Euskarazko Komunikazioaren EHUko ikastaroetan: "Euskarazko hedabideak lerratuegiak daude posizio politiko-ideologiko batzuetara". Ez da egokia argia izan behar duena ilun agertzea. Sikiera aukera izan bagenu galdetzeko zeintzuk ziren hedabideok, baina ez, ez zen hala izan. Mezua batzuentzat zen, azken hamarkadetan jeltzaileen ingurumariak molde ugariz esan ohi duen moduan. Ez gara itsuak, jakina, baina ez dira moldeak. Hedabide guzti-guztiak daude lerratuta zerbaitekin eta hala behar du gainera. Hori ukatzen duena, beste barik, gezurretan dabil. Murrizketa garaian, ez al du ekarriko honek atzerakadarik 2018an euskarazko hedabideen finantziazioa hobetzeko lortutako akordioei begira!

Berarekin jardun zuen solasean Mikel Irizarrek eta, laburrean, 2011tik entzuten ari zaion igogailuen teoria aipatu zuen ostera ere: hau da, informazioa gora eta behera aritzea tokiko eta nazio mailako hedabideen artean. Nola egin ez zuen aipatu. Modu askotan egin daiteke seguruenik, baina ez da praktikatzeko, edo oso gutxi. Hala ere, gaur egun bada bide horretan sakontzeko doako modu eraginkorra: hedabideok gure edukiak libre uztea sarean, nahi duenak har eta zabal ditzan. Askok dugu hori ahalbideratzen duen CC By-SA lizentzia, baina oso gutxi partekatzen dugu oraindik; hala ere, zorionez, gero eta gehiago. Ikastaroetan ez zen hortaz hitz egin. Komunikazioaren ikuspegitik, antza, ez da garrantzitsua, baina kazetaritzarenetik funtsezkoa da eduki libreen gaian sakontzea.

Josu Amezagak euskal hedabideetan izarretakoa izan den gai historikoa ekarri zuen: euskara erdarazko hedabideetan. Bere aburuz, asko ei dago egiteko esparru horretan. Bingen Zupiriak ere argi du euskarak irabazi behar duela erdarazko hedabideen mundua, garrantzi handiz aipatu zuen hori 2018ko Rikardo Arregi sarietan. Berriz ere hedabide elebidunen urruneko oihartzun -antzu?- hura. Azaldu beharko dute buruan dutena, baina ez dirudi teknologiak konpon dezakeen kontua denik. Euskarazko hedabideek lau hamarkadatan unibertso oso bat aurreratu duten moduan, prentsa elebidunak, oro har, kilometro gutxi batzuk besterik ez ditu egin. Ezin dira *Gara* eta Noticias taldekoak konparatu, ezta hauek Vocentokoekin ere, baina euskara menpekoa den proiektuetatik nekez lor liteke berau ahalduztea.

2017an interneten euskara bultzatzeko 73.000 euro jaso zituen *El Correo*-ko azal digitalaren elebitasun informatiboa honakoa zen urriaren 15ean, 17:00etan: 140 albistetatik 10 ziren euskaraz. Irakurleak pentsa dezake gaiez, tamainaz eta kokapenez nolakoak ziren. Gustura entzungo nieke Amezagari eta Zupiriari basamortu hori ureztatzeko buruan zer duten. ●



©404COMUNICACION


OSASUNGINTZA PUBLIKOAREN ALDE

TOLOSA. Jasan duen koronabirus fokuaaren ondoren, Tolosako Asuncion klinikako langileek salatu dute eskualde horretako erreferentziazko osasun zentroa pribatua izateak eragin zuzena izan duela kutsatze-kopuruan. Manifestazioa egin dute, klinikaaren publikazioa eskatzeko. Langileek urteak daramatzate lan-baldintzak hobetzeko borrokan, horrek zerbitzuaren kalitateari on egingo liokeela nabarmenduz.

KUTSADURA NUKLEARRA

Milioi 1 tona

ur, Fukushima kutsaturikoa, itsasora botako du Japoniako Gobernuak. 2011n zentral nuklearrean istripua gertatu zenetik kutsatutako ura bategietan jasotzen aritu dira eta arazo larri bilakatu da. Kutsatutako ura askatzeko lana, 1.000 tanke baino gehiagotan biltzen ari direna, 2022an hasiko litzateke eta hamarkadak beharko litzuke burutzeko.



Talde immunitatea proposatzea ez da etikoa, dio OMEk

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Osasunaren Mundu Erakundea ohartarazpena egitera behartuta aurkitu da, asteotan COVID-19aren kontrako ahaleginean hain polemikoa bihurtu den talde immunitatearen gaian: “Ez da onargarria ez zientziaren eta ez etikaren ikuspegitik”. Zientzialari talde batek konfinamenduak bazterturik taldeko immunitatea lortzeko estrategia sustatu behar dela aldarrikatu ostean berotu da eztabaida.

BARRINGTONGO AGIRIA

Barringtongo Agiria delakoak mobilizatu mintzatu dira zientzia, medikuntza eta beste osasun alorreko milaka profesional. Agiriak dio arrisku handiengan diren jendeak isolatzea izan behar dela bidea, gainerako herri-tarrei murrizketak gutxituta: taldeko immunitatea lortzean, arrisku handiengan diren jendeak birusarekin topo egiteko aukera gutxiago izango dutela.

“EZ DA AUKERA BAT”

Erantzun gogorrak piztu ditu agiriak, tartean osasun publikoko hainbat ikerlarirena: “Ezein ebidentziak ez du erakusten birusaz kutsatzeak horrekiko immunitate iraunkorrik eragiten duenik”, eta hori uste izateak arriskuan jarriko litzuke jende zaurgarriak. OME ere mintzatu da: “Bere kasa zabaltzen uztea birus arriskutsu bat, oraindik erabat ezagutzen ez duguna, argi eta garbi ez da etikoa. Ez da aukera bat”.



KORRIKA. Koronabirusak eragindako egoera dela eta, 2021ean ez dela Korrika izango eta 2022ra atzeratu dutela jakinarazi du AEK-k. 2022 aurretik, egoera berrira moldatuta zenbait ekintza egitea posible ikusten dute, baina Korrika ohiko moldean, ez.



ALDA. Alda mugimendu berria sortu dute Baionan, “jendarte herrikoien defentsarako”. Baldintza hobeak lortzea dute helburu, auzoan, lanarendako sarbideetan, garraioetan, eskoletan, administrazioan, etxebizitzan, zerbitzuetan, kontsumoan, ingurumenean...



INOR EZ DA ILEGALA. Frantziako Estatua zeharkatu du papergabeen martxak. Irailaren 19an abiatu ziren eta urriaren 17an heldu ziren Parisera, guztien erregularizazioa, erretentzio zentroyen ixtea eta etxebizitza guztiontzat exijitzeko. Egun berean protesta egin zuten Hendaia eta Baionan ere.

SUPREMAZIA ZURIAREN GAITZA

AZALERATURIK DUTE

AEB-ETAKO HAUTESKUNDEEK

Giroa berotuz eta polarizatuz doa azaroaren 3an egingen dituzten AEBetako presidentetzarako bozketak hurbildu arau. Plaza harturik dute supremazista zuriek: izan koronabirusaren kontrako neurrien aurka mobilizatzen direnen artean, Black Lives Matter mugimenduaren kontrako protestetan zein Donald Trumpi sostengua erakusteko elkarretaratzeetan. Zurien nagusitasunaren aldarria ez da fenomeno berria amerikarren artean. AEBen oinarrian dago jendartearen antolaketa arrazista hau eta beti egon da –batzuetan begi-bistan, besteetan diskretuago–. Kontua da Trumpek askatu eta hauspotu duela ikuspegia.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Eman pauso bat atzera eta egon zaitezte prest erantzuteko”. Giro tentsioduna baretu beharrean, mezu hau luzatu berri die Proud Boys milizia-kon supremazista zuriei Donald Trump AEBetako presidenteak, Joe Biden presidentetzarako lehiakidearekin egindako eztabaidan. Azaroaren 3ko hauteskundeak aitzinatu arau, giroa berotuz doa eta armatuz doaz amerikarrak. Gerra zibilaren arriskua geroz eta gehiagok dute ikusten. Koronabirusaren izurriteak ekarri bazuen armen erosten emendioa, hauteskundeek are gehiago azkartu dute fenomeno. National Instant Criminal Background Check System egitura dabil arma erosle berrien aurrekarien aztertzen eta martxoan 3,8 milioi eskaera aztertu zituen. Ekainean berriz, Georges Floyd afroamerikarraren hilketak salatzeke manifestazioak alde guztietan zirela, 4 milioikoa izan zen kopurua.

AEBetako Konstituzioak dakarrelako armatua izateko eskubidea: “Milizia ongi antolatuta bat ezinbestekoa denez Estatu libre baten segurtasunerako, arma bat ukateko herritarrak duen eskubidea ez da inoiz urratua izango”. 1791n idatzirikiko testu horri buruzko eztabaidak egon arren –batzuk diote estatu federalari loturiko miliziek dutela eskubidea, besteek berriz, herritarren eskubideaz ari dela testua–, aipamenak hor darrai eta Konstituzioak babesturik, arma daramate, determinaturik. FBIko agente izandako Michael Germanen analisia

interesgarria da supremazista zurien bilakaera aztertzeke. 1990eko hamarkadan talde hauek infiltratu zituen eta gaur egun Brennan Center for Justice institutuan dabil. Atxilotuak izateko beldurrez, hamarkada horretan supremazista zuri aktiboek manifestazioez –eta beraz poliziaz– urrun gelditzen baziren, Trump boterean denez geroztik hori aldatu dela dio. Barack Obama presidente zela loraturiko taldeak plazaren erdian dira 2017az geroztik. “Mugimendu hau ez da gehiago gobernuaren kontrakoa, gobernu federala ez delako gehiago bere etsaia. Ikuspegia aldatu du Trumpek, miliziak orain Trumpen aldeko formazio politikoak dira”. Ongi daki hori AEBetako presidenteak eta “eman pauso bat atzera eta egon zaitezte prest erantzuteko” zentzuduna izan daiteke logika horretan.

Urrunago doa kontua; alde berean kokatzeaz gain, arerio bera ere identifikaturik du: antifaxistak. Talde terroristen zerrendan gehituko zituela jakinarazi zuen maiatzaren 31n, Georges Floyden hilketaren testuinguruan. “Presidenteak Black Lives Matter manifestazioak eta delako antifak etsai gisa identifikatuz borrokatu beharrekoari buruzko mezu argia bideratzen die poliziarri baita talde hauei ere”, Germanen arabera. Funtsean, *Hidden in Plain Sight: Racism, White Supremacy, and Far-Right Militancy in Law Enforcement* (“Begi hutsez ezkutatua: arrazakeria, nagusitasun zuria eta eskuin muturreko militantzia polizian”)

txostena publikatu zuen Germanek agorrilaren 27an, zeinetan xeheki frogatzen duen supremazista zuriak poliziaren baitan sarturik direla AEBetako dozena bat estatutan. Dionaz, “arrazakeria esplizitu” hau hor dela badakite gobernuak zein FBI egiturak berak: “Poliziakide hauen ekintza arrazisten berri badaukate, baina kanporaketak ala diziiplina neurriak bideratzen dira soilik eskandalu publikoak gertatzen direnean”. 2015 urteko “terrorismoaren kontrako direktiba eta txostenean” jada, FBIk ohartarazi zuen supremazista zuriak daudela poliziaren baitan. Are gehiago, ekintza terrorista gehienak talde hauek bideraturikoak direla ere dio. Hala eta guztiz ere, gobernu federalak “araberako neurririk hartu ez izana” deitoratzen du Germanek. 1954tik 1968ra iraun zuen afroamerikarren eskubideen aldeko mugimenduari esker poliziaren baitako “arrazakeria esplizitu” hau mugatzeko neurriak bideratu baziren ere –polizia gehiegi zirelako KKK Ku Klux Klan talde supremazistaren baitan–, benetako aldaketarik ez zen bideratu. Vida B. Johnson unibertsitarioaren hitzak hartzen ditu txostenean: “Xede duen zuzentasunaren helburua ezingo du bete sistemak, supremazista zuriek poliziaren baitan gordetzen segitzen duteino”.

“AEBen sorreraren oinarrian dago supremazia zuria, legeak eta praktikak santutua. Ipar Amerikaren kolonizazioaren, amerindiarren azpiratzearen eta



TRUMPISTAK

ESKUIN-MUTURREKO MILIZIA
ASKOK DIOTE SOSTENGUA
ERAKUSTEN DONALD TRUMP
PRESIDENTEARI. GISA BEREAN,
TRUMPEK BIDERATU MEZUAK
TALDE HAUEI BIDERATURIKO
BEGI-KLISKAK DIRA.

afrikar bahituen eta hauen ondorengoan menperatzearen motorra izan da”, Germanen hitzetan. Horregatik da gaitza hain errotua eta hedatua. Oroitarazten du nola esklaboen patruilak izan ziren amerikar kolonietako lehen polizia-egitura publikoak.

AEB-EN OINARRIAN DAGO GAITZA

Esklabotza bukatu arren, supremazia zuriak bere horretan segitu zuen, baina beste forma bat harturik: segregazio politiken bidez. Bat dator irakurketa horrekin Françoise Coste *France Culture* irratiari emandako *Le suprémacisme blanc, le mal persistant de la politique étatsunienne* (“Supremazismo zuria, AEBtako politikaren gaitz iraunkorra”) elkarrizketan. Dioenez, goiz ala berant AEBetan gertatzen den orok du lotura esklabotza-

rekin: “Bada lau mende supremazismo zuria existitzen dela AEBetan. Leporaino sarturik dira arraza-problematika horretan”. 1861etik 1865era iraundako Gerra Zibilaren bidez esklabotza bukatu izana osagai gisa kokatzen du: “Trauma bat dago, 700.000 hil ondorioztatu zituen gerra horrena. Biztanleria zuriaren herra eta aiherkundea ere hor dira, mendeku gose bat dago. Oroz gainera, porrot politiko bat izan zen, esklabotzaren abolizioa izan arren, segregazioarekin ordezkatua izan zelako”. Zuriaren nagusitasuna indarkeriaren bidez segurtatu zela dio: indarkeria konkretua –1866an sorturiko eta oraindik hor diren KKK gisako talde bortitzen bidez–, segregazio politikoaren bidez, baita indarkeria ekonomikoaren bidez ere. Germanen gisara, Obamaren presidentetzan kokatzen du aldaketa po-

tentea Costek ere: “Biztanleriaren zati batek ezin izan zuen onartu Obamaren izendapena eta ezabatuz zihoan herra berpiztu zen, pentsaera arrazista askatu zen”. Gehitzen duenez, Trumpismoaren oinarrian eta mamian dago aldaketa hau. “Trumpek ez du KKKen aurpegi-estalkirik, baina ederki dakizki erabiltzen oinarri horrek arras ongi ulertzen dituen termino kodetuak”. Hori horrela, arerioak identifikaturik, herrari bidea irekiz, bi aldeak polarizatuz eta sua hauspotuz, geroz eta gehiagok dute gerra zibilaren mehatxua ikusten. “Galdurik, Trumpek Etxe Zuria utzi behar balu ere, bere diskurtsoa hedatzen segituko lukeela aurreikusi daiteke” dio Marc Simard historialariak. Trumpek luzaturiko deiarri “prest gaude” erantzun dio Joe Biggs Proud Boyseko buruak. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



LENTEJUELEKIN ITSUTURIK DAGO JENDE ASKO ETA ROCK MUNDUAN MEZUAK ALBORATZEN ARI DIRA



El Drogas dokumentala ikusi berritan, protagonistarekin mintzatu gara. Barricada talde mitikoa, bere *socia*-rekin drogen mundura eginiko joan eta etorriko bidaia, feminismoa, memoria historikoa, literatura, alzhemerra, politika, bilobak, eszenatokiak... Gauza piloari eman diogu errepasoa.
“Gustura, ostia!”, berak esanen lukeen bezala.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

***El Drogas* dokumentalak oso harrera ona izan du ikusleen partetik.**

Zu gustura gelditu zara?

Orokorrean gustura, bai 80 minutu hauetan kontatzen denarekin baita jendeak nola hartu duen ikusita ere. Dena den, dena hartzea ezinezkoa da eta penaz gelditu naiz, adibidez, Motxila 21 taldearen gaia ez delako aipatzen, baina neurtu behar da denbora. Bestalde, Barricadaren nire ikuspuntua ematen dut, baina ez da Barricadari buruzko dokumentala.

Barricada eta 80ko hamarkadako Txantrea bereizezinak dira?

Norbaitek egiten duena ulertzeko bere testuinguruan kokatu behar da. Fakto-

re komun asko genituen estatuko beste toki askotako errealitatearekin, horregatik Madril, Bartzelona eta baita hiri txikiagotako langileen auzoetan ere, gure musikak harrapatzen zuen jendea. Franco hil ondorengo urteak oso gogorrak izan ziren. 1980ko hamarkadan sartu zen *zaldia* [heroina], auzo askotan, familia askotan. Maiz galdetzen diot neure buruari zergatik dagoen boterea drogen legalizazioaren aurka. Ghettoak sortzeak berekin dakar zaborra diamante prezioan ordaindu behar izatea eta horrek familia askoren egitura eta ekonomia hondatzen ditu. Estatuak berak dira negozio ilun horiek guztiak maneiatzen dituztenak. Begiratzen hasten bazara ikusiko duzu heroina trafikoa pasatzen

zen bideetatik, pasatzen direla orain armak, organoak, emakumeak... dena kazahar bera da eta haren aurka egiteak ezinezkoa dirudi.

Drogaren zabalkunde hartan motibazio politikoak ere funtsezkoak izan ziren?

Jakina. Eta ez bakarrik Euskal Herrian, Bartzelonan eta Madrilan ere bai. Auzoetan zeuden elkartasun mugimenduak suntsitu nahi zituzten. Hori dena itzaltzeko erabiltzen ziren *zaldia* eta beldurra, batez ere lana galtzearen beldurra. Lehen, Francoren garaian alkohola eta erlijioa, herriaren opioa, erabiltzen ziren horretarako. Beti trafikatzeko da ideia eta sustantziekin.



Enrique Villarreal Armendariz

IRUÑEA, 1959



18 urterekin baxua hasi zen jotzen eta Punk Sapos Band eta Kafarnaun taldeetan aritu zen. 1982an soldaduskatik itzultitakoan Barricada sortu zuen Txantrea auzoan Boni, Mikel Astrain eta Sergio Osésekin. 25 disko kaleratu eta milioi bat kopia baino gehiago saldu zuten 30 urtean. 2011n *El Drogas* kaleratu zuten eta handik urte eta erdira desagertu zen Barricada. La venganza de la abuela, Txarrena eta gaur egun El Drogas bandarekin jarraitu du bere ibilaldia, denera beste hamar disko kaleratuz. Mamen Irujoren *socia*, bi seme-alabaren aita eta bi biloben aitatxi da.

Eta orain?

Orain oso latza da langile auzoetan gertatzen ari dena apustu etxeekin, adibidez. Arrotxapea, esate baterako, Iruñean elkartasun-sare sendoena duen auzoa da eta hau da, hain zuzen ere, apustu etxe gehien duena. Ez da kasualitatea. Pertsonaren indibidualismoa bultzatzen da. Eta guk dena sinesten dugu. Ongi legoke errealitatek gertuagoko irizpideak bagenitu.

Arteak laguntzen ahal du irizpide horiek eraikitzen?

Niri bai, behintzat. Nik egiten dudanak produktu izaten bukatzen du, niri gehiegi ez gustatu arren, baina behintzat saiatzen naiz produktu hori mantendu dadila ahal den eta fidelen nik pentsatzen dudanarekiko. Nire lanekin jendeak bere irizpide propioak egin ditzan nahi dut. Ez dago deus arriskutsuagorik norberak bere kabuz pentsatzea baino.

Norbaitek katua sakatu behar duela zioen musikariak, nola darama zentsurarena?

Guri Barricadan bi abesti zentsuratu ziguten garaian, Negu Gorriaken afera ari zen gertatzen Galindorekin, beraz, horren ondoan, gurea irrigarria zen. Polygram multinazionalak *Bahía de Pasaia* abestia kendu zigun laugarren diskotik. Mamen, nire *socia* [bikotea], *Egin*-etik pasa zen informazio bila eta hala sortu zen kanta.

Gero seigarren diskoan beste bat zentsuratu ziguten: *En nombre de Dios*, Opusi erreferentzia egiten diona. Badu puntu umoretsua, eta literarioki asko gustatzen zitzaidan estribilloa: “sacramento, sacrosanto, sacristán sacrificado, sacrilegio consagrado, la señal del santo cristo...”. “Ostia, zer ona naizen!”, pentsatu nuen. Polygrameko arduradunarekin eztabaida latza izan nuen eta ikusi nuen morroia nola jartzen zen zurbil. Handik gutxira aldikari batek argitaratu zuen single pirata bat bi kantu horiekin eta oihartzun oso zabala izan zuen. Kontzertuetan jendeak eskatzen zituen eta goitik behera zekizkien letrak. Ikaragarria izan zen.

Eta autozentsuratu zara noizbait?

Ez dut inoiz sentipen hori izan, baina bai iruditzen zaidala, hori nolabait gertatzen ari dela rock munduan, edo behintzat ni mugitzen naizen ere-

muan, ez delako posible rock munduak horren gerra gutxi ematea.

Duela zortzi urte *Demasiado tonito en la corteza* disko hirukoitza atera nuen. *Matxinada* abestian politikari batzuen kritika egiten da eta *Vamos a desahuciar a la Casa Real* diogu, baina inork ez du ezer esan. Agian kontua da beldurrik ez diegula ematen jada.

Auzitegi Nazionalaren beldurra hor dago beti, sortzaileen buruan?

Izan daiteke. Ez dakit. Hala ere, iruditzen zait rockaren munduan jende asko lentejuekin itsututa dagoela eta mezuak albo batera gelditzen ari dira.

Egungo musikaren panoramari dagokionez, reggeatona gustukoa ez dudan arren, kezkatzen nau haren kontra dagoen oldarraldiak, AEBetatik datorren industriari aurre egiten dion mugimendu bakarra denean. Ongi iruditzen zait aztertzea zeinen matxistak diren letra batzuk eta hori guztia, baina hori ere ez da berria eta ez da soilik gertatzen estilo honetan. Gurean ere matxistak izan gara eta bagara! Askok aldatu behar da, norberarengandik hasita. Gizonok gure alde femeninoari ateratzen utzi eta bigarren lerroa pasatzen ikasi behar dugu. Niretzat plazerra da fardelak aldatzea, adibidez. Gainera lehena ez bazara, matxoena ez bazara, frakasatua besterik ez zara.

Aldatuko litzateke mundua emakumeon mezuak ozenago adituko balira?

Nik uste dut baietz, dena den orokorrean hitz egitea oso arriskutsua da, baina iruditzen zait zentzu handiagoa dagoela emakumeen pentsamendu globalean, harreman zuzenagoa dutelako lurrarekin, naturarekin eta tradizionalak besteak zaindu eta etxeak antolatu dituztelako. Elkartasuna eta enpatia landu dituzte gehiago eta hori da denok ikasi behar duguna.

Gero eta gutxiago fidatzen naiz asanbladez, batez ere gizonek osatzen badituzte. Alderdi politikoak ere ez zaizkit gustatzen. Kortse moduko bat dira, eta hori da dagoen gauzarik antidemokratikoena. Enpatia sustatu behar dugu, ergeltasun maila jaitsi nahi badugu.

Enrique Mayarengatik kapaz nintzateke berriro haxixa erretzeko: “Enrique, izenkide, goazen peta bat erretzera eta hitz egitera eta utzi pailazoei beren lana egiten”.



Kutxi Romerok dio irakurketak salbatu zaituela. Zer irakurtzen duzu? Denetik, plazer ikaragarria da niretzat. Batez ere poesia. Kontakizun laburrak ere oso gustuko ditut. Julio Ramón Ribeyroren ipuin batean oinarritu naiz disko bat ateratzeko.

Irakurtzen eta idazten dudanarekin jolastea gustatzen zait. Askotan plagioa deabrutu egiten da eta ez da aintzat hartzen zeinen ederra den bitxigintzan egiten den bezala, diamante bat hartu, eta beste pieza landu batean ezarri bitxi berri bat sortuz. Hori da niri gustatzen zaidana testuekin egitea. Orain liburu bat ari naiz idazten eta zimikoa egin nahi diot jendea-ri aipatzen ditudan egile horiek irakur ditzan. Eta aldi berean, proposatu nahi diot irakurleari berak ere beste pieza berri bat egin dezan irakurritakoaren gainean. Literatura, arraioa, jolasa da!

Ez zait interesatzen lehena izatea ezer-tan, ikasten segitu nahi dut, besterik ez. Luxua da. Bizitza sekulako eskola da, baina askok ez dute aukerarik. Konfinamen-

duan ez nintzen geldirik egon: orain 300 orrialde ditut, eta bost kanta berri.

Dokumentalean familiarekiko duzun atxikimendua nabarmen erakusten da. Ez da oso ohikoa rock izar batengan, ezta?

Gu halakoak gara. Seme-alabarekin asko gozatu nuen txikiak zirenean, baina bi-lobekin jabetzen naiz denbora azkar pasatzen dela eta gaur ikusten duzun gauza bakoitza ez dela errepikatuko. Une jakin batean haien bizitza bizitzera joanen dira eta nik antsia dut une guzti-guztiak bizitzeko.

Eta drogei buruz ere modu garbian hitz egiten duzue. Zer kontsumitu duzu?

Ia denetik. Ematen du *zaldia* ere sartu dudala, baina ez. Nik suertea izan dut txikitatik asma izan dudala eta probak egiteko ziztada asko egin didatenez, orratzak ezin ditudala ikusi ere egin. Baina speed, anfetak, *perika* [kokaina]... bai. Esaten zuten

koka-k ez zintuela harrapatzen... Gainera, sartzen zenuena kaka hutsa zen.

Heroina introspektiboa da eta besteak, aldiz, kanpora begirakoak, ongi pasatze-koak. Nik hitz egiten nuenean *zaldia*-ren menpeko zen jendearekin, haien bizi filosofia askoz interesgarriagoa iruditzen zitzaidan. Ni bakartia izan naiz beti eta haiekin identifikatzen nintzen gehiago, baina orratzekin ezin nuen.

Zergatik sartu zinen putzu horretan?

Gauza berriek atentzioa ematen dizute eta hormonon iraultzaren urteetan, are gehiago. Leherketa bat da. Gainera arrakasta baduzu, protagonista zarenean, ez zara pentsatzera gelditzen eta gau bakoitza azkena balitz bezala bizitzen duzu. Orduan, bat-batean, aurkitzen zara egoe-*ra* ergel batean, non zure indar guztiak substantzia bilatzera bideratzen dituzun. Ni honetaz ohartzean hasi nintzen kontsumoa nabarmen jaisten. Kontzertuetara nindoanean drogazaleena, mozko-*tiena* eta makarrena nintzela erakusteko beharrik ez nuen sentitzen jada. Histeriaz inguratuta nengoen, baina ez nuen parte-hartzen horrenbeste. Etxean ere ikusi genuen beharrezkoa zela gauzak bere tokian jartzea eta, horrela, Mamenek eta biok prozesu oso polita hasi genuen; dagoeneko badira 20 urte ezer hartzen ez dudana, ez drogarik ez alkoholik ere. Dena den, ez dut uste mundu hori deabrutu behar denik, adizio mota asko dau-*delako*. Pertsona hauek guztiak ez dira putakume batzuk. Bultzada bat behar dute gaixotasun hori onartzeko eta aitortzeko. Zu aditzeko prest dagoen norbait ondoan izatea behar da.

Eta eszenatokia zer da zuretzat?

Biloben ondoren gauzarik handiena da. Nire ofizioa da eta luxua da gustatzen zai-*zun* horretatik bizitzea. Gainera, honek gehiago irakurtzera eta musika gehiago entzuterara eramaten nau, ikasten eta konposatzen segitzeko. Egoismo hutsagatik nago ni honetan. Nahasten ditut ofizioa eta zaletasunak. Nik gozatu egiten dut eszenatokian, jendea-ri nire ideiak bidaltzen nire listua eta izerdi tantekin batera.

Hori ez da oso egokia Covid garai honetarako...

Bai, baina niri gustatzen zait areto txikien batailetara sartzea. Jendearen ondo-on-*doan* egon, mota guztietako jariakinak trukatu... Jaialdi handietan hori ez da gertatzen, dena handiagoa delako, hotza-*goa*, baina areto txikietan bai. Izorratua

ikusten dut panorama. Pandemia honek lehenagokoa eta ondorengoa markatu-ko ditu bai, baina lehenago ere egoera bereziak egon dira, gero eta maizago: HIESA, behi eroen gaitza, SARS, MERS... Hasten ari gara gauzak beste modu batez ikusten.

Eskrupulosoagoak izanen gara?

Baietz uste dut nik. Eta putada bat da. Ni betidanik hotzagoa izan naiz. Ama besarkatzen hasi nintzen alzheimerria diagnostikatu ziotenean. Orduan jakin nuen zer den besarkadak ematea eta besarkatua izatea, ostia! Eta zeinen gustura ibili naizen zortzi urteotan bera lastantzen eta ipurdia garbitzen. Eta orain, hain gustura nagoela nire inguruko jendea besarkatzen, kakazahar hau ateratzen da. Kontaktu fisikoarekin lortzen duzun konexioa ordezkaezina da.

Pandemiaren erdian joan zitzaizuen ama, ezta?

Bai. Apirilaren 2an hil zen, pertsona gehien hil zen egunean. Oso ahul zegoen eta ez dakigu birusa harrapatu zuen ala ez, baina berdin dio, modu batez edo beste bukaeran zegoelako. Oso gogorra izan zen, azken egunetan ezin izan genuelako

ikusi eta errausketara ere bakarrik hiru pertsona joateko baimena zegoelako; eta gainera, iritsi ginenerako jada erraustuta zegoen. Gero, ahal izan genuenean, familia osoa bildu ginen bazkari bat egiteko. Nik ez dut mezarik behar agur esateko. Beste askok bakardadean pasa behar izan dute dena eta hori latza da.

Txantreak jarraitzen du izaten auzo gatazkatsua?

Gauzak aldatu dira toki guztietan. Agian orain, Txantrean eta beste toki askotan, arazo nagusia mugimendu asoziatiboan dagoen banaketa da. Betidanik bi joera izan dira: sindikala, auzoetako apaizen laguntzarekin askotan, alde batetik, eta abertzalea bestetik. Eta azken honetan orain dagoen desadostasunak banaketa ekarri du auzora. Euskal Herriko mugimendu sozialetan askotan ezker abertzalea saiatu da indarrak biltzen, okupazioa edo intsumisioaren inguruan, adibidez. "Egin soldaduska ETAn", esaten ziguten eta batzuek ez genuen nahi ez armadan eta ez ETAn ere. Nire ustez, ezker abertzaleak ez du jakin izan bere papera zehazten. Erakunde armatu bati abangoardia izaten utzi dio helburu sozial eta politikoak lortzeko, eta XX. eta

XXI. mendeetan hori ulertzea oso zaila da. Eta honekin batera, noski, estatuaren gerra zikina dago, molestatzen dugun guztiak ETA garela esanez.

Zure dokumentala estreinatu zen Zinemaldian eta han bertan ere Patria telesaila aurkeztu zuten.

Patria liburua ez dut irakurri, baina neure buruari zin egin diot irakurriko dudala, ez dudalako kritikatu nahi irakurri gabe. Telesaila ez dut ikusiko. Ez zait interesatzen. *No hay tregua* kanta sartu nahi zuten eta ezetz esan nien. Imaginatzen nuen tiroek nondik joko zuten, eta ez nuen nahi. Nola konpondu behar dira arazoak horretarako borondaterik ez badago?

Bonirekin egin zenuen bezala?

Ni Barricadatik bota ninduten. Pertsona batzuen ego arazo bat izan zen, baina Boniren aurka ez daukat ezer. Ez litzaidake inportako elkartzea akorde batzuk egiteko. Hemen zorionsuak ginateke. Ez dugu Barricada berreskuratu behar, ez diogulako inori ezer demostratu behar. Nik Barricadarekin bizi izan dudana ez nuke ezere truke aldatuko, eta 30 urte horiek nire oinarria dira egiten dudana beste guztirako. Horrekin gelditzen naiz. ●

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA

2020ko urriaren 28a

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, **Eskoriatza**

www.soziolinguistika.eus/jardunaldia



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

09:15 Sarrera

09:30 **Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia** – Jone Miren Hernandez (EHU) eta Olatz Altuna (SL Klusterra)

10:30 **Eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa** – Iñaki Martinez de Luna eta Maialen Iñarra (SL Klusterra)

11:15 Atsedena

11:45 **Ahozko komunikazioa euskararen ezagutza baxueneko inguruneetako ikastetxeetan** – Idurre Alonso (MU), Agurtzane Azpeitia (MU) eta Olatz Bengoetxea (SL Klusterra)

12:30 **Nerabe eta gazteen puzzlea osatzen I**

- *Kirol-taldeak erabilerara gune* – Jaime Altuna (EHU)
- *Lidergoetatik eragiten* – Eusliderrak- AEK-Ahize
- *Bertso-eskolak sozializazio eremu gisa* – Miren Artetxe (EHU)
- *Gazteei begira: usteetatik jarretara* – Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- *Gazteak euren aktibazio prozesuen ikerlari* – Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea)
- *Euskararen erabilerara espedizioa* – Euskarabentura

14:00 Bazkalordua

15:00 **Nerabe eta gazteen puzzlea osatzen II**

- *Ludikotasuna eta emozioetatik eragiten* – Pulunpa- Euskal Herriko Ikastolak
- *Aisialdiaren gakoa* – Euskaltzaleen Topagunea
- *Soziolinguistika lantzen ikasgelan* – Emun
- *Unibertsitateko ikasleen hizkuntza-profilak eta erronkak* – MU

16:00 **Mahai-ingurua: norantz? zein bidetatik?** – Jone Miren Hernandez (Euskal Herriko Unibertsitatea), Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea) eta Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

17:30 Itxiera



Europako diru laguntzak: *business as usual*



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Europatik edozein pertsona arruntek neurtu ezin duen diru kantitatea helduko da gurerara. Ekonomiaren gainbehera nabaria da: Nafarroan Barne Produktu Gordina %9 eta %10,2 artean erortzea estimatu du AIREFek; Euskal Autonomia Erkidegoan emango den murrizketa, berriz, %9,5 eta %11,8 artean estimatu du. Hau asko ala gutxi da? Milioi eurotan adierazten badugu, Nafarroan 1.920 eta 2.176 milioi euro artean jaitsiko da eta EAEn, 7.104 eta 8.824 milioi euro artean. Sarritan, milioi euroak aipatzen denean, zaila egiten da kopuru hori buruan irudikatzea. Jaitsieren garrantzia hobeto ulertzeko, aurrekontu publikoekin alderaketa egingo dugu: Nafarroako kasuan, BPGren jaitsiera hori 2020ko aurrekontuen %42 eta %48 artean aurkitzen da eta EAEn kasuan, Jaurilaritzaren 2020ko aurrekontuen %60,3 eta %75 artean kokatzen da. Ikus daitekeenez, kolpea latza izaten ari da.

Udan Europar Batasuneko aurrekontua eta diru laguntzak negoziatu ziren. Urte Anitzeko Finantza Esparrua, 2021etik 2027ra bitartean EBren aurrekontua dena, 1.074.300 milioi eurotan adostu zen, aurreko epealdikoa (2014-2020) baino 12.897 milioi euro murriztago. Aldiz, asko txalotu izan da Next Generation EU plana, 390.000 milioi euro diru laguntza zuzenetan esleituko dituen, 360.000 maileguen bidez. Espainiako Erresumak 72.700 milioi euro

Bruselatik dirua
ez dator inoiz
doan: egiturazko
“erreformak” izango
dira hauen ordaina

diru laguntza zuzen moduan jasoko du eta 67.300 maileguetan. Hauxe, asko ala gutxi da? Ideia bat egiteko, Erresumari zuzeneko laguntzetan tokatzen zaiona bankuen erreskatearen antzeko kopurua da (itzuliko ez dena, bide batez esanda); 2020ko urtariletik ekainera bitartean BPGan galdutakoa; edo 2008tik bankuei injeztatu zaien diru guztiaren %20.

Hala ere, oharkabean igaro den elementu bat akordioaren puntu zehatz bat izan da. Bertan zehazten da estatu ki-deek, diru laguntzak jasotzeko euren erreforma eta inbertsio-programa azaltzeko “Berreskurapen eta Erresilientzia Plan Nazionalak” egin behar dituztela. Bruselatik dirua ez dator inoiz doan: egiturazko “erreformak” izango dira hauen ordaina.

Txoko txiki honetan, Jaurilaritzak eskatuko duen kantitatea publikoa egin da, 11.000 milioi euro jaso nahi du,

beren urteko aurrekontuaren antzeko kantitatea, edo 2018ko EAEko Administrazio Publiko guztien gastuen %60a. Oposizioari esker jakin dugu zertan gastatu nahi den: ia erdia AHTko lanetan, Iberdrolan eta Petronorren xahutuko dira.

Kolpe ekonomikoa latza izaten ari da, lehen aipatu denez. Egoera gaitzitzeko EBk diru inbertsioak sustatzeko erreminta abian jarri du, horien artean Next Generation EU. Ekonomia trantsizioa bultzatzeko martxan jarri dira, baina agerian geratzen ari da betiko negozioa bultzatuko dela, aukera garrantzitsu bat galduz. Horren atzean dagoen mekanismo bat “*path dependence*” da: agintariak hartzen dituzten erabakiak, iraganean hartutako erabakien edo esperientzien arabera direla. Berdin du zenbat diru eskaintzen den, ez da posible izango ekonomiaren norabidea beharrezkoa den era erradikal batean aldatzea, pertsonak eta natura alde batera uzten duen ekonomiaren norabide honetatik irtetzea oso zaila izango da.

Arazo sistemikoen aurrean gaude. Sistema eraldatzen duten aldaketak behar ditugu. Hori ez da EBko diruaren bitartez lortuko, agerian geratzen ari den bezala. Gure erronkarik handiena bestelako bideak zabaltzen jarraitzea da, jakinik bertoko elite politiko eta ekonomikoa ez dagoela hori egiteko prest. Baina beti izan da horrela, ezta? ●

Lamia



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Joan den buruilaren 6an iragan da Saran Idazleen Biltzarra. Pazko biharamunean gertatzen da usaian Iparraldeko liburu azoka ezaguna. 2017az geroztik, gainera, bi egunez antolatua da: publiko zabalarentzat lehen egunean, bigarreanean profesionalentzat. Aurten, osasun egoerarengatik, bigarren egun hori ezeztatua izan da, baina lehen izan da, eta txalotzekoa da. Jendea hurbildu da, eta plazer handiz erakusmahaien artetik hara-hona ibili naiz ni ere, plazaratu liburu berrien aurkitzeko, hostokatzeke edo etxerako hartzeko.

Argitalpen gustagarri franko begiztatu ditut, eta argitaletxe berri bat ere deskubritu. Hori da Hendaian kokatua den Lamia “euskal argitaletxe kosmopolita”. Webgunean ikus daiteke “hemengo eta kanpoko literaturak” publikatu nahi dituztela etxe horren editoreek. Zehazki, Lamia argitaletxeak bi ardatz dituela ulertu dut: alde batetik, frantsesez idazten duten Euskal Herriarren sorkuntzak argitaratzen ditu, edo Euskal Herriarekin lotura duten testu edo idazleen lanak; bestaldekik, euskarazko literatura hartzaile frankofonoari ezagutarazteko “xantza” eskaini nahi dio, frantsesezko itzulpenak plazaratuz. Bi ildo horien oinarria,

kalitate literarioa omen da. Eta hain zuzen ere, argitaletxeak momentukoz salgai dauzkan Gil Arrocenaren bi obrak, *Un étrange ravissement* eta *Élégie basque*, gustatu zaizkit eta ontzat dauzkat. Autoreak zorroztasun estilistikoa zaintzen du, unibertso berezi bat eraikiz.

Nik literatura ona preziazten dut. Hizkuntza ezberdinetako idazleen liburuak aztertzen eta maitatzen zaletu naiz, eta obra on berriak aurkitzeak altxor bat aurkitzen duen urre bilatzailearen poz sakona eragiten dit.

Bizkitartean, Euskal Herriarren frantsesezko obrak argitaratzean, Lamia argitaletxe “euskaldunak” azken hamarkada hauetan Euskal Herrian agertu funtsezko galdera itzularazten du: zer da “euskal” literatura? “Euskal” argitaletxea? “Euskal argitaletxe kosmopolita”? Zer zilegitasunez erabiltzen ote du “euskal” adjektiboa Lamia argitaletxeak, bere ildo editoriala kualifikatzeko?

Euskaldun izatea, egungo multikulturalismoa onestea da, diote Lamiak bezala pentsatzen dutenek; euskaldun izatea, Édouard Glissantek “mundialitatea” deitzen duen kultur aniztasuna eta kultur nahasketa asumitzea da, ahalkerik gabe, alderantziz, harrotasunez. Hor delako,

horrela; gurea delako. Eta aniztasuna irekidura da, harreman aberats eta loratzearen sinonimo.

Euskaldun izatea, mundu kosmopolita honetan geurea bereiztea eta garatzea da, diote beste batzuek. Kulturen uhartedian –Glissanten hiztegiarekin jarraitzeko–, gure uhartearen berezitasuna elikatzea da, uniformizazio itogarrian ez urtzeko. Gure bidea egitea da, gure argi propioz proposatzea munduaren interpretazioa.

Bi jarrera horien arteko hautu ideologikoa egitea ezinezkoa zait. Nago behin eginen dudanez. Errealitate bortitzez egiten dudana azterketa kritikoak eta mendera ezin dezakedan barne-oladar batek bigarren posizionamenduaren alde plegatzen nau, indar handiz; isuri hori zentzuzkoa, zuzena eta beharrezkoa iruditzen zait. Ezin uka, haatik, kultur nahasketaren ibaian murgilduak garela, eta maiz emozionalki gozagarri eta intelektualki estimulagarri zaidala egoera hori, bereziki kalitate estetikoazko obretan gauzatzen delarik.

Egongaitzasun horretan dantzan nagoela oroitarazi didate Gil Arrocenaren liburuek, bai eta literatur onak gure baitako kontradikzioak onarrazten ahal dituela ere, baketsuki. ●



ENEKO GORRI
EUSKARA
TEKNIKARIA

Ongi etorri?

Argiki erran dezagun: ez dut maite idazki horren gaia. Ez dut maite, gai horrekin ez naizelako eroso senditzen eta militante naizenetik ditudan printzipio asko zangopilatzen dituelako. Baina gure etorkizuna seriozki baldintzatzen duen heinean, ondoko le-roetara ekarri nahi nuke hala ere.

Hiru hilabeteko itxialdiaren ondotik, uda osoan gure bazterrek gainezka egin dute. 2019an “turismoa barnekaldean eta urte osoan” garatuko zutela zioten hautetsi berdinek erraten digute orain “doitu” behar dela. Turismo kontrolaezin horrek bere zakuan dakartzan kalteen artean, lurraldearen erakargarritasunaren areagotzea da.

Datuak hor dira: urtero, 3.000 pertsona datoz bizitzera 300.000 biztanle dituen 3.000 metro koadroko lur zati batera (Lapurdi, Baxe Nafarroa, Zuberoa). Parisko erretiratu zaharren figura topikoaz haratago, 20-49 urte arteko bikotea da nagusi. Hots, aktiboak eta familiak. Gaur egun, Ipar Euskal Herrian bizi den biztanleriaren % 42,8a ez da Euskal Herrian sortua. Konfinamenduak hiritar exodo berri bat sortu du: hiru hilabetez telelana esperimentatu duten dirudunen partetik eskaera berri frango jasotzen ari dira tokiko etxe agentzietan.

Ez da fenomeno berria. Baina geroz eta jende gehiagok pairatzen ditu presio

horren eraginak: herrian bizitzeko ahalik ez duten gazteek, lurraren desjabetzeaz mehatxatuak diren laborariak eta oro har espekulazioak presionatutako herritarrek. Harrigarria da Ipar EHko biztanleria zabal batek diagnostikoarekin bat egitea, baina soluzioak hain gutxi aipatzea. Eskuin muturreko erretorikan ez lerratzearen beldurrez behar bada?

Dena dela, Euskal Herria beti izan da harrera eta pasaia lurraldea. Horrek egokitu du gure nortasun kolektiboa eta kultura. Besteekin nahasteak dakarren aberastasunaz jabeturik, ez ditzagun ukatu bi estatuen asimilazio prozesuak. Hots, migrazio fluxuek toleranteago eta multikulturalago bihurtzen bagintu, bikain. Baina gureru bizitzera datozen %91,5a frantses estatukoak izanki, ez ote du horrek azkartzen jadanik indarrean den dinamika bat?

Adibideak ez dira falta gure etorkizunean duen eragina ilustratzeko. Ekin-tzaile garenok errealitatea aldatzea amesten badugu, gai horri ere heldu beharko diogu. Euskal herritar berriak amesten dugun herria eraikitzen lagun gaitzan, ez dugu jasan behar. Ez dugu mugarik nahi eta aniztasunaren errespetua dugu oinarri. Inklusio eredu berriak asmatuz, transmisio kanalak indartuz, diruaren erreinuari eraso eginez, Euskal Herri barneko turismo estrategiak diseinatuz... lor dezakegu. Baina bada lan! ●

Colón



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Urriaren 12an hispaniarrek jai dute. Baina herritar gero eta gehiagok besta-egun horren funtsa salatzen du, Ameriken “deskubritzea” baino, bostehun urte iraun duen lurralde ultramarinoen ustiaketa basatia baizik ez zela izan ondorioztatuz. Salatzaileen lehen lerroan, bistan dena, Mexiko, Peru edo Kolonbiako autoktonoak, hots gure haurride nahuatl, azteka eta maya, besteak beste. Las Casasen eta Colónen berunezko tailuak kentzea xede dute, 1989tik hara Europa ekialdeko lurraldeetan Lenin eta Stalinenak idoki ziren bezala. Damurik gabe...

Irakurri dut nonbait, Mexiko hirian, urriaren 12aren bezperan, udalak Colónen estatua atera duela, arraberritzeko asmoz. Baina bertako andere auzapezak adierazi du, agian etorkizunean, ez dutela bere lekuan berriz ezarriko... eta AMLO presidenteak bere aldetik, Vatikanuari eta Espainiari galdatzen die, amerikar kontinenteko arimarik ez omen zuten indigena guztiei barkamena eskatzea.

Euskaldunok ere badugu burua makturtzekoa: Colón eta ondoko konkistatzaileekin ausarki ibili ginen eta Amerikaren urrearen hatzak ageri dira gure etxe eta hiri-erdi askoren fatxadetan.

Atx Etxebeste jauna! ●

Haurdun geratu nahi eta ezin



ANA MENDIA
EMAGINA

Ez dugu sinetsi nahi, baina aldi berean txoratzen gaude". Hamar urteko mediku-pelegrinazioaren ostean irten zaie azkenean txanponaren beste aldea, eta haurdunaldiko kartilla eskutian hartuta joan dira kontsultatik.

Laguntza bidezko ugalketarako itxarote-zerrendan egotea ez da dirudien bezain ohiz kanpoko. Orain egun batzuk irten zen prentsa oharra: azken bost urtean %28 egin dute gora laguntza bidezko ugalketek Espainiako Estatuan. 2018an jaiotako haurren %9 baino gehiago izan ziren teknologiaren laguntzaz ernaldutako zirenak; hamarretik ia bat, alegia.

Ernalketarako bidean badira lauak diren errepideak eta badira espedizio nekezak; dena dela, zeharkaldia ez da nolanahikoa izaten. Espermatozoide bizkor eta lehiakorrenak lasterketa irabazi eta esperoan egon beste ardurarik ez duen obulu handi, borobil eta pasiboa konkistatzen duela kontatu ziguten. Bertsio patriarkala onetsi genuen. Eta, horregatik, prediktorean bi marratxo irteten ez direnean badirudi ez garela

Benetan azkena zein den erabakitzea ausarta da oso. Ze, zenbat eta nekezagoa saiakera, orduan eta zailagoa soka askatzea

izan behar bezain borobil, behar bezain paziente, behar bezain zintzo, behar bezain saiatu; edo, akaso, behar bezain trebe, behar bezain lehiakor, behar bezain indartsu.

Aurreneko pausoak tximeleta efektua dakar atzetik, askotan. Lehenago edo beranduago miraria gertatuko den esperantza-sokari helduta, behin eta berriro bilakatzen da azken saiakera zena azken aurreko. Gero eta lodiagoa mediku-hitzorduen karpeta.

Egunak, orduak, dosiak, pilulak, zan-

tzuak, zikloak, emaitzak, txostenak, fakturak.

Gailurrera helduz gero sakrifizioak merezi du, noski. Bada, ordea, tontorra zapaltzen ez duenik. Baina, jakina, hainbesteko dirutza mugitzen duen negozioari nekez okurrituko zaio autobus markesinetan egia gordina iragartzea. Zalantza izpirik egon ez dadin: badira hamar urtean txanpona bota eta bota jardun arren beti aurpegi bera ikusten dutenak. Eta bide batez: ez dut uste karpeta ixtea etsitzea denik. Benetan azkena zein den erabakitzea ausarta da oso. Ze, zenbat eta nekezagoa saiakera, orduan eta zailagoa soka askatzea.

Inpotentzia, frustrazioa, haserrea, pena, inbidia, dolua, nekea, mina, lotsa, bakardadea, errua.

Ugalezintasuna gurasotasunaren beste aurpegi bat da. Joera argia da, gainera: gero eta haur gutxiago jaiotzen dira, baina gero eta gehiago dira tratamenduz lagundutako munduratzak. Benetan latza da higadura fisiko eta emozionala bizikide izatea; are neketsuagoa tabua eta epaia inguruan dabiltzanean. ●



ZALDI URDINA

IGOR ELORTZA eta UNAI ITURRIAGAREKIN idatzia
Zuzendaritza: XIMUN FUCHS eta AINARA GURRUTXAGA
Aktoreak: ANDER LIPUS - OLATZ BEOBIDE - URKO R. PESCADOR
MIREN ALCALA - MANEX FUCHS - EDURNE AZKARATE - OIER ZUNIGA

AXUT! • ARTEDRAMA • DEJABU

www.zaldiurdina.eus

EMANALDIAK

URRIA 23 ELGOIBAR 24 ALTSASU	ABENDUA 1 IRUN 2 EIBAR 4 DONOSTIA 5 ZIZUR NAGUSIA 11 TOLOSA 19 ASTIGARRAGA 27 LEITZA
AZAROA 10 SENPERE 13 LEIOA 14 HAZPARNE 21 ATARRABIA 27 ERMUA	



BARATZEA
BASOA
LORE BARATZEA
FRUITU BARATZEA

Bizitzarako agenda berezia dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erraminta baita. Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikastez gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak, gure bizitzako hitzorduak, egin beharreko lanak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak. Eta aldi berean, agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...



Ilargia eta landareak 2021

AGENDA

14€

Jakoba Errekondo
Antton Olariaga

EROSTEKO

argia.eus/azoka

943 37 15 45



ARGIA

BIZI BARATZEA

Bertsozale Elkarteak

“PLAZAK SEGURUAK DIRA ETA BERTSOLARIAK ORDAINA BEHAR DU”

Urtebete egina dute koordinatzaile karguan Idoia Trenorrek eta Jon Agirresarobek. Bertsozale Elkarteak ordura arte pertsona bakarra izan du funtzio horretan, eta lehendakari bakarra. Baina 2018an sei lehendakari izatera pasatu zen, eta ondoren koordinazioa lau eskutara eramatera. Ardurak modu "bizigarriagoan" eramatea eta egitura horizontaltzea bilatu dute horrela. Eta bi buru hauek dihardute egun elkartearen bihotzean: aspaldidanik bertako langile eta txapelketen antolatzaile izandako Jon Agirresarobe, eta feminismoan zein euskalgintzan ibilbidea duen Idoia Trenor.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **DANI BLANCO**

Bertsozale Elkartearen zein ezaugarriak deitzen dizue arreta?

JON AGIRRESAROB. Bertan lanean hamahiru urte aritu arren, oraindik harrituta geratzen naiz mugimenduaren bizitasunarekin. Astero dago proposamen berri bat, edo kudeatu beharreko tentsioren bat... jendea ez dago geldirik eta hori oso ona da bertsolaritzarentzat.

Bestetik, txunditzen nau ikusteak kultur proiektu bakarrean hain abiapuntu ezberdina duen jendeak hartzen duela parte: herrialdeka, adinez, edo bertsolaritza bizitzeko moduan oso diferenteak direnak kultur proiektu batean lotzen dira. Egungo gizartean, hori gauza handia da, eta momentu deseroso bat dagoen bakoitzean hori pentsatzen jartzen naiz, "honek behintzat merezi du".

IDOIA TRENOR. Nik ere bizitasuna nabarmenduko nuke: gizarte mugimendu bat da bere horretan elkarteak, bertsolaritzaren barruan.

Mugimendu feministan garrantzia handia ematen zaio belaunaldi ezberdinetako kideek militantzia espazioak edo borrokak partekatzeari, eta arreta deitu dit Bertsozale Elkartearen ere ematen zaion garrantziak. Bai soldatapeko langileen artean, bai lan boluntarioa egiten dutenen artean, bai bertsolarien artean, adinartekotasuna zeharlerro izateak asko aberasten du proiektua.

Bilakaera handia egin du 30 urtean Bertsozale Elkarteak eta soldatapeko langileen kopurua asko hazi da: bakarra izatetik 125 izatera (horietatik 50 ikastetxeetan bertsolaritza irakasten ari direnak). Horrek zein ondorio ditu borondatezko lanarekiko orekan?

J. AGIRRESAROB. Elkarteak bertsolaritzarentzako erramintak sortu ditu eta horrek azken urteetan espezializazio handia eskatu digu: hezkuntzako ira-

kasleak trebatzea, ikusentzunezkoetarako produktora oso bat garatzea, Lanku zerbitzu enpresa sortzea, Xenpelar dokumentazio zentrua... horrek ekarri du langile taldea handitzea.

Militantzia ere asko aldatu da. Elkartearen sorreran oso potentea zen, gaur egun ere 100 pertsona inguru mugitzen da elkartearen baina elkarte bateko kide izateko modua asko aldatu da.

I. TRENOR. Beti mantendu behar da oreka, hainbeste soldatapeko langile izanik eta borondatezko langileek oso modu diferenteetan parte hartzen dutenean: herrialdeetako zuzendaritzetako kideak, hau da, erabakigune nagusietakoak, borondatezko langileak dira, lehendakariak ere bai, beste borondatezko langile batzuek bertso saioak antolatzen lan egiten dute, aulkiak jarritz... Hori da erronka, elkartearen parte hartu nahi dutenentzako moduko egiturak sortzea, ez soldatapeko langileen arabera egitu-

Bertsoaren Etxe Zuria.

Villabonako Mintzola etxean du egoitza Bertsozale Elkarateak eta bertan egin dugu hitzordua.

rak, kidego guztiak parte hartzeko modukoak baizik.

J. AGIRRESAROBÉ. Bai, ea nola antolatu behar dugun Elkarate militantzia mota bakoitzari behar duen informazioa eta kokapena emateko. 120 langilek sortzen dituzten lan, proiektu, kezka, abiadurak nola uztartu borondatezko lanarekin? Formula zaharrek ez dute balio.

Bazkidezek gora egin dute eta

2.500dik gora dira egun.

Zein dira bazkideak lortzeko gakoak?


I. AGIRRESAROBÉ. Proiektuarekiko atxikimendu handia duten bazkideak dira mugimendua osatzen dutenak eta etengabeko lanaren emaitza da. Momentu zehatzetan kanpaina komunikatiboak egin

dira, batez ere elkarteak sortu zenean eta handik hamarkada batera, 1996. urtean. Dena den, ekintza komunikatibo zehatzez harago, atxikimendu handia sortzen du sormen lanak berak. Bestetik, mugimendu gisa uste dut asmatzen dugula proiektu edo erramintak edukitzeen bertsozale mota askorentzako: gazteentzako udalekuak, Internetez bertsoak entzuteko aukera, txapelketak... ekimen horiek denek erakusten dute atzean proiektu bat dagoela. Beraz, horien artean, hau da, sormen lanak duen pisua, gizarte mugimenduak duena eta proiektu bakoitzak sortzen duen atxikimenduari esker lortzen dugu kanpaina handirik egin gabe, garai gogorretan ere bazkide gutxi galtzea eta baita pixka bat gora egitea ere.

I. TRENOR. Aipatutakoez gain, komunitate baten parte izateko aukera ematen du bazkideak, komunitate baten proiektua babestekoa. Uste dut bazkideen artean multzo handi bat perfil horretakoa dela.


Hiru hanka ditu elkarteak sorreratik: hezkuntza, ikerkuntza eta sustapena. Hiru hanken luzera ez da berbera, ezta?

I. TRENOR. Hiru hanken dimentsioa ez da bera, baina kontuan hartzen dugun elementuaren arabera, dimentsioa bera ezberdin baloratuko genuke. Aurrekontu edo langile askoz gehiago mugitzen ditu hezkuntzak baina horrek ez du esan nahi beste bi hantek baino garrantzia handiagoa duenik.



2020ko aurrekontu bateratua:

4.307.643 €



2020ko aurrekontuaren erabilera:

4.307.643 €

J. AGIRRESAROBÉ. Hezkuntza da zenbakitan handiena, herriz herri egin behar delako lana eta horrek eskuak eskatzen dituelako. Herrialdeetan banatuta dago ahalegin hori, dimentsio handia du eta emaitza hor dago: harrobi lana egiten du, baina ez bertsolariena bakarrik, baita bertsozaleena ere. Plazetan eta txapelketetan zenbat gazte ateratzen dira bertsotan eta zenbat gazte joaten dira entzuterara? Bestek beste, transmisio lanaren ondorio da.

I. TRENOR. Bestalde, elkarteak sorreratik apustu oso irmoa egin du ikerkuntzaren parte den dokumentazio zentroa sortzen eta eusten. Krisi gogorrenetan ere eutsi egin zaio dokumentazio zentruari, horrek erakusten du hasieratik aitortu zaion estrategikotasuna, nahiz eta zenbakietan txikiagoa izan.

J. AGIRRESAROBÉ. Dokumentazio Zentruan duela 20 urteko langile kopuru bera dago, eta dimentsioz oso txikia da, baina gainerako proiektu guztien oinarria da: Xenpelarren daude datuak, Xenpelarren dago irakurketak egiteko materiala... ikustean jende askok harrituta esaten du "hau dena dago!", baina egun hau dena daukagu, duela 30 urte elkarrekin apustu egin zuelako.

I. TRENOR. Eta sustapen alorra, berriz, birpentsatzen ari gara, COVID-19aren eraginez plaza nola dagoen ikusita.

J. AGIRRESAROBÉ. Bai, izan ere azken gogoeta estrategikoak eta COVID-19ak

airean utzi dute elkartean beti mantendu izan den intuizioetako bat: plazari bere kasa joaten utzi behar ziola Elkarrekin, hor eragin gabe. Gaur egun uste dugu plazak sustatzea ezinbestekoa izango dela, antolatzaileek bultzada bat behar dute eta baliabideak jarri beharko ditugu horretarako.

COVID-19ak zein unetan harrapatu du Bertsozale Elkartea eta zertan eragin dio gehien?

J. AGIRRESAROBÉ. Ondorio lazgarriena plazan izan du. Martxotik iraila arte 550 saio inguru galdu dira iraila arte (plazaren %72,5). Gure plaza festari lotua dago eta jarduera sozialak murriztu diren honetan saio asko erori egin dira, baina aldi berean oso eskertuak gaudu antolatzaileei: festak egin ez badira ere, askotan bertso jaialdia mantendu egin dute. Baina jendearengandik gertueneko saioak direnak, hau da, tabernetan egiten direnak, librekoak, edo otorduen bueltan egiten direnak, erabat galdu dira.

Bertsozale Elkartea bere gogoetetan hasia zegoen urtetan intuizio sendoa izan zen "plaza ez ukitu" hori kuestionatzen, elkartearen hiru zeharlerroak plazan txertatzea eta sortzaileen lan baldintzak lantzea lehentasunezko gaitzat hartzen zen. Eta COVID-19ak hau azeleratu du eta gaia gordin gordin erdigu-nean jarri du.

I. TRENOR. COVID-19aren ondorioz kalea hutsik dago, elkar topatzeko ez dago espaziorik, badirudi ezin dela ezer antolatu... eta horren ondorioz herri ekimenak (izan kultur elkarte, bertso eskola...) arduraren beldurra sentitzen du eta kaleko jarduera paralizatu du. Uste dut elkartearen arduetako bat dela sustapen lan horren barruan antolatzaile txikiei baliabideak ematea. Bestela, badirudi kultura mota bakarrak hartuko duela indarra: erakundeetatik edo erakunde pribatuetatik sustatzen denak. Hor erronka handia dugu, espazioak galdu ez daitezen.


J. AGIRRESAROBÉ. Bai, bertsolaritza anitz da eta ez dadila aniztasun hori galdu.

Lau milioi eurotik gorako aurrekontua du Bertsozale Elkarrekin urtean. COVID-19ak ekarri al du ekonomikoki birplanteamendurik egin beharra?

I. TRENOR. Bai, asko hitz egin dugu honen inguruan. Herrialdeetako elkarrekin, Lankuren eta Euskal Herriko Elkarrekin zazpi NIFak bateratzea ekarri du, elkarrekin aurre egiteko etor daitetzkeen egoerei. Bakoitza berean egon beharrean, elkarrekin pentsatu beharra ekarri digu. Elkar babestea praktikan nola egiten den lantzen ari gara, baliabide eta dirutan nola konkretatzen den. Baina tira, ariketa hori elkartean ez da berria, etengabe egiten da. Proiektuen

Bertso saioen kopuruaren bilakaera

1990-2019



Iturria: Xepelar Dokumentazio Zentroa.

Oharra: COVID dela-eta, 2020ko martxotik irailera 550 saio (%72,5) galdu dira.

bideragarritasuna nola lortu aztertu dugu, agian proiektu batzuk ez direlako bideragarriak, baina beste batzuk badirenez, bata bestea eusten du. Ez gaude murrizketen unean, baina horrek ez du esan nahi horretaz ere hitz egiten ez dugunik.

J. AGIRRESAROBÉ. Egin dugun elkartasun ariketa horrek baimendu du momentuko neurriak hartzea. Lanku ERTEan egon da, eta bertsolari batzuei babes ekonomikoa eskaintzeko kutxa ere elkartasun horretatik sortu zen, ikusten genuelako bertsolariak zirela zaugarrienak.

COVID-19arekin kulturgintzako prekaritatea agerian geratu da. Aurre egiteko zer duzue esku artean?

J. AGIRRESAROBÉ. Langileok oso kontziente gara bertsolarien babesetik sustengatu dela elkarteak, bai bere hasieretan eta gaur arte. Alor ekonomikoan, hiru une gako egon dira Bertsozale Elkartearen historian: lehenengo txapelketak utzi zuen etekin ekonomikotik sortu zen Elkarteak, eta baziren beste aukera batzuk ere, enpresa bat sortzea adibidez, baina kultur elkarte bat sortzea erabaki zuten bertsolariak. Bigarren une gakoa 90eko hamarkadan izan zen: Euskal Telebistarekin harremana eten zen, eta plaza gehien egiten zituzten bertsolariak dirua jarri zuten elkarteak eusteko, bakoitzak egindako saioen

proportzioan. Egun ere, Hitzetik Hortzera telebista saioa egile eskubideak elkarteak kudeatzen ditu eta proiektura bideratzen ditu. Hori guztia eman diote bertsolariak kolektiboki, proiektuari, txapelketek gure ekosisteman duten oinarria ahaztu gabe.

“Elkartearen arduretako bat da antolatzaile txikiei baliabideak ematea. Bestela, badirudi kultura mota bakarrak hartuko duela indarra: erakundeetatik sustatzen denak”

Idoia Trenor

Orain lehentasunen artean dago sortzaileen lan-baldintzen gaia. Argi dugu bertsolariak ariketa kolektiboa egin behar dutela egoera irakurtzeko: gaur egun zer da bertsotan jardutea, zer sorkuntzatik bizitzea? Eta elkartearen bidez

lan politikoa egin behar dugu, bertsolariak ateratako ondorioak administrazioarekin lantzeko, sorkuntzarako beharrezko diren baldintzak lortzeko.

I. TRENOR. Berehalako neurrietako bat izan da sormen kutxa: Elkarteek aurrekusi gabeko ekarpen bat egin dute, eta horrekin sortu dugu diru poltsa bat eta poltsa horretatik zati bat bideratu da bere ogibidea plaza zuten bertsolarien-tzat. Poltsatik beste zatia "plaza biziberritzen" proiektua martxan jartzera bideratu da: konfinamendu garaian elkartearen egoitzan grabatu ziren bertso saioek osatu zuten. Helburu bat saioak antolatzea zen, baina beste helburu bat baldintza duinetan egitea.

J. AGIRRESAROBÉ. Bi gauzak aldarrikatu eta praktikan jarri nahi ditugu: bertsolariak ordaina behar duela bere lanagatik, eta plazak behar direla, plazak seguruak direla.

Konfinamendu garaian Jaurlaritzako Kultura sailarekin bildu izan zen Bertsozale Elkarteak. Sumatu zenuten sintoniarik?

I. TRENOR. Oso argi dago elkarrekin egin beharreko bidea badagoela. Hainbat bilera izan genituen Jaurlaritzarekin, kultur diziplina anitzetako eragile eta sortzaileekin batera, eta horren ondoren diru-laguntza batzuk atera zituen Jaurlaritzak. Baina solapatu egiten ziren Espainiako Estatuan atera ziren kultur

Bertsolaritza ikastetxean

Ikastetxe publikoak, ikastolak, kristau eskolak... bertsolaritza hainbat ikasgelatara sartu da 1986tik Bertsozale Elkarteko irakasleen eskutik.



50 irakasle



28.500 ikasle



463 ikastetxe

Bertso eskolak

Haurrek zein helduek bertsotan jarduteko eta herrian bertso mugimendua sustatzeko gune nagusiak dira.



2019-2020 ikasturteko datuak.

sortzaileentzako diru-laguntzekin eta krika-krakak izan genituen diru-laguntza zehatz horren irizpideengatik, EAEkoa eta estatuko laguntza ez zirelako osagarriak, bata edo bestea hautatu behar zuen bertsolariak. Beste gai historiko bat da autonomoetan ez dagoela "bertsolarri" epigraferik, eta ondorioz, bertsolari bakoitzak epigrafe batean ematen du izena: oso gauza teknikoa da baina uste baino garrantzia handiagoa du.

J. AGIRRESAROBÉ. COVID-19a inprobisazio ariketa handi bat izan da guztion aldetik, eta elkarteak ere bere baliabide gutxi horiekin eragingo du, nahiz eta anekdotan geratuko den egingo duena. Baina ikusi dugu, bai kolektiboak, bai kolektiboak Jaurilaritzarekin, lan bat egin beharra dugula.

I. TRENOR. Elkarrizketa bidea zabalik egon da Jaurilaritzarekin. Nahiz eta elkarteek eta erakunde publikoek bakoitzak bere bidea egin eta bakoitzak bere ideiekin jarraitu, kultura ulertzeko moduetan eta baliabideen banaketan adostasuna lortzeaz gain, zoru komun bat bilatzeko ardura denok dugu, ahalegin bat eskatzen du egoerak.

J. AGIRRESAROBÉ. Bai, askotan diru-laguntzetara mugatzen gara eta askoz elkarlan eremu zabalagoa izan behar dugu, kulturaren eta sorkuntzaren egoeraz hausnartu behar dugu kultur proiektuek eta administrazioek elkarrekin. Bestalde, euskarazko kultur proiektuek elkarrekin gogoeta egiteko leku bat bilatu behar dugu, horretan eragile izan nahi luke Bertsozale Elkartek.

I. TRENOR. 2018ko gogoeta estrategikoan apustu egin zen kulturagintzaren



barruan espazio handiagoa hartzearen bila, kanpotik bertsolaritza euskalgintzarekin soilik lotu izan delako. Oso argi dago kultur diziplina bat dela eta beraz, kulturagintzan bere espazio propioa behar duela. Horren atzetik datozen galderak dira Euskal Herrian kulturaz zer ulertzen den, zein leku duen gure gizarteak, euskal kulturaz zer iruditegi dagoen, zer sustatzen den eta zer ez... konfinamenduan bide bat egin da.

J. AGIRRESAROBÉ. Orain arte egoera soziolinguistikoa oso loturik egon denez bertsolaritza, euskalgintzako ateak ireki zaizkigu eta guk ere euskarako ateak jo


izan ditugu. Orain kulturagintzako ateak ere jotzen hasi gara, eta sortzaileen prekarietatea edo plazen sustapena landu behar baditugu, ez ditugu euskarako ateetan bakarrik landu behar.

Hiru zeharlerro ditu elkarteak: lurraldetasuna, feminismoa eta belaunaldiartekotasuna. Generoaren gaian zein momentutan dago Elkarteak eta zein dira hurrengo erronkak?

I. TRENOR. 2018ko gogoeta estrategikoan hainbat erronka bereizi ziren ildo feministan. Gazteen plazaratzea zen ho-

Bazkideak

2020/03/06



Bazkideen bilakaera



Zenbat gara eta nola? "Orain arte asko begiratu diegu zenbakiei: zenbat bertsozale, zenbat bazkide, zenbat bertsolari, zenbat bertso eskola... orain gehiago ari gara bertsolaritza bizitzeko modu diferente bakoitza ulertzeko ahaleginean", Jon Agirresarobe.

rietako bat. Azterketa soziologikoak oso garbi erakusten du 18 urtera arte nahiko parekidea dela bertso-eskoletan ibiltzen diren kideen kopurua, baina 18 urtetik 25era sekulako arrakala dagoela. Hor jarri behar da begia eta sustatzeko baliabideak eta proiektuak garatu behar dira.

Beste erronketako bat formazio prozesua da, denona: bertsolariena, antolatzaleena, elkarteko langileona... Plaza da eremu ikusgarriena eta hor eredu izan nahi dugu: elkarrekin antolatutako saioetara eraman nahi ditugu guretzako praktika onak direnak, eredu izan nahi dugu eta ardura badugu horretan.

Barrura begira, parte-hartze prozesu bat daukagu martxan eta nola antolatzen garen aztertzen dugunean presentzia handia izango du begirada feministak: esaten dugunean zaintzak erdigunean jarri behar direla, edo proiektu bizigarriak egin behar direla, zertaz ari garen eztabaidatu eta definitu beharko dugu. Elkarrekin egituraren barruan batzorde feministak bat sortu dugu eta 2021ean berdintasun plana egingo dugu.

Lurraldetasuna da elkarrekin ezaugarria, hasieratik. Zer diozue esperientziatik?

J. AGIRRESAROB. Bertsozale Elkarteen barruan bidaia edo eraldaketa pertsonalik handiena sortu didan gaia da. Biak dira aberatsak: lurralde bakoitzeko eta lekuan lekuko idiosinkrasia ulertzea, eta, aldi berean, proiektu orokor batean elkarri ekarpenak egitea. Bertsozale Elkartean hainbat ondorio ateratu dugu: beharrezko dela marko orokor bat partekatzea, eta denontzat baliagarri di-

ren tresnak sortzea. Baina askotan egoskortu egin gara emaitza ere bera izan dadin Euskal Herri osoan, bidea ere bera izan dadila, baina gehienetan ez du balio. Proiektuak lekuko ezaugarriak erantzun behar badie, egokitu egin beharko du, baina izan dezala irakurketa bateratua, nahiz eta irakurketa horren ondorioak berdinak ez izan leku bakoitzean.

“Bertsolariek sustengatu dute ekonomikoki Elkartea, izan dituen une zailetan. Orain sortzaileen lan-baldintzak dira lehentasunetako bat”

Jon Agirresarobe

I. TRENOR. Euskal Herria ikusi eta antzematen dut marko bateratu horretan, diskurtsoetan, babesteko neurrietan edo tresnak sortzeko orduan. Baina elkarrekin proiektuak oso modu diferentean lur hartzen du herrialde bakoitzean, bai bolumenean (aski da lurralde bakoitzeko bazkide kopurua ikustea), bakoitzak dituen baliabideetan eta erritmoetan.

J. AGIRRESAROB. Hizkuntza komunitateari oso lotuta dago lurralde bakoitzean Elkarrekin eta bertsolaritzak duten gorpuztea. Baina poza ematen du ikustek

lurralde denetan badela abaro handi-xamar bat. Orain arte asko begiratu diegu zenbakiei: zenbat bertsozale, zenbat bazkide, zenbat bertsolari, zenbat bertso eskola... orain gehiago ari gara bertsolaritza bizitzeko modu diferente bakoitza ulertzeko ahaleginean: bertso ikasle guztiak ez dira berdinak, ez dutelako atxikimendu bera ez hizkuntzarekin, ez kulturarekin, ez bertsorekin, ez lurraldearekin edo talde dinamikekin... orain arte denei berdintsu eman diegu jaten eta orain hori ari gara garatzen guztion artean.

Belaunaldiartekotasuna da hirugarren zeharlerroa. Zein da helburua?

I. TRENOR. Hasteko, aitortza egitea orain arte elkarrekin egindako bideari. Uste dut belaunaldiartekotasunaren ardatzetako bat transmisioa dela, baina jakintzaren transmisio hori modu oso berezian egiten da, ez bata besteari "hau horrela egiten da" esanda, praktikatik baizik, partekatuz: bertso-eskola, oholtza edo saio osteko potea partekatuz. Balio erantsi bat da belaunaldiartekotasuna elkarrekin proiektuan, baina gero adin bakoitzak behar du bere espazio propioa ere, bere adinkideekin elkartzeko.

J. AGIRRESAROB. Bizi zikloen kontzientzia hartu dugu, eta garrantzitsua da mugimenduak lagundu diezaiola pertsonari aurkitzen adin bakoitzean zer bilatu eta zer eman dezakeen elkartean. Oso natural egin da orain arte, baina hainbeste militantzia mota daudenean, esplizitatu ere egin behar da. ●

ARABAR ERRIOXAKO MAHASTI-PAISAIAREN HISTORIA

Botere-jokoak mahastien inguruan

Ebro ibaiaren ertzean kokatuta, Torrentejo herri hustuak eta alboko Castrijo mendiko terrazek mahastien historia gorabeheratsua gordetzen dute. Berau ezagututa, ikus daiteke nola "tradizionaltzat" duguna, sarri, oso garaikideak diren joera ekonomikoetan oinarrituta eraikitzen den.

 **JOSU NARBARTO HERNANDEZ**

Torrentejo herri hustua (Bastida) Ebro ibaiaren ertzean kokatuta dago, Arabako Errioxa bete-betean. EHUKo Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa-Taldeak ikerketa-proiektu arkeologikoa garatu du bertan hainbat urtez, iturri dokumentalak, indusketa arkeologikoak eta nekazaritzarako terrazen analisi sedimentologikoak uztartuz. Lan horiei esker, gaur egun abandonatuta dagoen gunen hau, mende luzez botere harreman konplexuek zeharkatu zutela frogatu ahal izan da eta eskualdeko historia politiko eta ekonomikoa ulertzeko giltzarri da.

KOMUNITATE BATEK MOLDATUTAKO PAISAIA

Ebro ibaiaren hegian kokatutako Castrijo mendiaren magal osoa, nabarmen, nekazaritzarako egokituta ageri da: harritzko hormaz eutsitako lur-betelane bidez terraza mailakatuak daude eraikita. Bertako profil sedimentarioak aztertu ondoren, ikerlariek ia bi metroko sakoneran topatu dute jatorrizko lurzorua; bertako zein gaineko betelane arrasto organikoak erradiokarbono bidez datatu, eta terrazen eraikuntza-lanak K.o. VII. mende inguruan egin zirela ondorioztatu dute. Lan hauek ez ziren nolanahikoak izan; lan-esku eta baliabide inbertsio handia eskatu zuten, eta nekazaritza eredu konplexu baten adierazle dira. Argi dago, beraz, Goi Erdi Aroan komunitate bat egonkortu zela inguru

honetan, eta honek ekintza kolektibo eta koordinaturako gaitasuna zeukala.

Emaizta horiek oso deigarriak dira eta kontrastea egiten dute mendiaren magalean, Torrentejo herrian bertan, egindako indusketa arkeologikoekin. Horien arabera, izan ere, ezin izan baita IX. mendea baino lehenagoko bizigunerik ez beste arrastorik identifikatu. Nork eraiki zituen, beraz, Castrijo terrazak? Ikerketak ez du, oraingoz, erantzunik.

IRUÑEKO ERREGEAK ETA MONJE ARDOGILEAK

Argi dagoena da, edonola ere, Torrentejo herria azkar garatu zela Erdi Aroan, XI. menderako zenbait eraikin monumental altxa baitzituzten bertan: jauregia izan litekeen harritzko egitura handi bat eta, honi atxikita, eliza. Elementu hauek isla dute garaiko iturri dokumentaletan ere, mende haietan Ebro harana Iruñeko erresuma egituratu zuten harreman sozial, politiko eta ekonomikoen ardatz bilakatu baitzen. Hala, 1075. urtean, Antso IV. erregeak Torrentelio herrian zituen jabetzen erdia dohaintzan eman zizkion Donemiliagako monasterioari; horien baitan zeuden, Santa Maria eliza ez ezik, landak, mahastiak, iturriak, larreak, basoak eta abar. Ondorengo urteetan, Donemiliagako monjeek arras hedatu zuten beren eragina Torrentejoren gainean, ondasun berriak erosiz edo tokiko aristokraten-gandik dohaintzan jasoz. XII. mendea bukatzerako, monasterioak Torrentejon zeuzkan ondasunen %38 mahastiak zi-

ren, eta nekazaritzako espezializazio horrek azaltzen du, ziur aski, Castrijo terrazen mantenua garai honetan. Arabar Errioxa Donemiliagako monje ardogileen eskutik txertatu zen erresumako elkartruke ekonomikoen sarean, neurri batean behintzat esportaziora bideratuta egon zen ardogintzaren bidez.

NOLA HUSTEN DEN HERRI BAT

Egoera guztiz aldatu zen Behe Erdi Aroan. Alde batetik, Araba Gaztelaren menpera pasa zen 1200. urtean, eta Ebro harana muga-lur bilakatu zen. Horren adibide da 1242an Bastidako hiribildua fundatu ondoren, inguruko herririka guztiak hustu izana, biztanleria haren inguruan zentralizatzeko. Torrentejo ez zen salbuespena izan. Herria okupatuta zegoen oraindik 1320an, Bastidak eta Briñasek sinatutako muga-hitza baten aipatuta ageri baita. Haatik, XV. eta XVI. mendeetan egindako mugarritze berrietan, haren aipamena desagertu egiten da, eta oso litekeena da ordurako herria abandonatuta egotea. Indusketa arkeologikoek ere berretsi dute herria garai horretan hustu zela. Giza okupazioaren azken zantzuak XIV. mende amaieran edo XV.aren hasieran kokatzen dira: sutondo bat eta etxebizitza baten arrastoak izan litezkeenak induskatu dira, elizatik ehun bat metrora. Hauen gainean metro eta erdiko betelana zegoen, hau ere XV. mendean datatua.

Une honetatik aurrera Torrentejo mahastiak Bastidatik kudeatu ziren eta haien hedadura hazi ere egin zen.



XVI. eta XVII. mendeetan zehar, Arabar Errioxako ardogintzako espezializazioak gora baino ez zuen egin, bere kokapen estrategikoari esker. Alde batetik, Toloño mendilerroaren hegoaldeko magalean eta Ebro ibaiaren inguruan kokatutako lurrak bereziki egokiak ziren mahatsa hazteko; klima mediterraneo leunak ere lagundu zuen. Bestetik, Arabako lurraldean egonik, bertako produktuek ez zuten muga-zergarik ordaindu behar Gasteizko edota Bilboko merkatuetan saltzeko, foru sistemari esker; eta horrek abantaila konpetitiboa eman zien Errioxa gaztelarreko produktuen aurrean.

ARDOGINTZA, ESPEZIALIZAZIOTIK MONOLABORANTZARA

Mahasti-laborantzaren bilakaerak goia jo zuen XIX. mendean. Garai horretan, Castrijoko terraza-sistema ere goitik behera eraldatu zen. Alde batetik, lehendik ere existitzen ziren terrazak berreraiki zituzten, metro erdiko betelan berri bat gehituz. Beste aldetik, terrazak Castrijon ordura arte ustiatu gabeko zenbait aldetara ere hedatu ziren, ia mendi osoa hartzeraino. Garai honetakoak lirateke egun bertan ikus daitezkeen euste-hormak, neurri handiko harri blokez eginak, baita han eta hemen "fossilizatuta" gelditu diren mahatsondo enbor zaharrak ere. Lur-profilen analisi sedimentologikoak erakutsi duenez, gainera, betelan horiek izaera organiko samarra dute, simaurra bezalako ongarririk erabili izanaren seinale. Badirudi, beraz, terrazak berreraiki

eta toki berrietara zabaldu ez ezik, haien ustiapen eredua ere intentsifikatu egin zela. Prozesu honek, noski, kapital- eta lan-esku-inbertsio handiak eskatuko zituen.

Ezaguna da XIX. mende hasieratik Arabar Errioxa osoan eman zen mahasti-monolaborantzarako joera. 1803an egin-dako inkesta baten arabera, Bastidako laborantza lurren %88 zegoen mahastigintzara bideratuta; gainera, aurreko urteetan 128 hektarea baso luberritu ziren, bertan mahatsa sartzeko. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek zein Arabako Foru Aldundiak ere sustatu zuten prozesu hau, Frantziako mahastigintzaren berrikuntza teknikoak inplantatuko zituzten ingeniariak kontratatuz, besteak beste.

Monolaborantzarako progresio honek etenaldi bortitza izan zuen XX. mende hasieran, filoxera-izurriaren ondorioz. Gaitzaren lehen zantzuak 1900an antzeman zituzten Araban, eta berandu gabe eskualdeko mahatsondo ia guztiei eragin zien. Hala eta guztiz ere, badirudi erre-kuperazioa ere azkarra izan zela, izurriarekiko erresistentzia zeukaten barietate amerikarren oinetan Europako mahatsondoak txertatzen hasi zirenean. 1925ean Errioxako Jatorri-Deitura Babestua sortu zen, eta ordutik eskualde osoko ardogintza upategi espezializatuen esku gelditu da; hauek teknifikazio gero eta handiagoa sustatu dute ardo-ekoizpenean, eta ia osoki esportaziora bideratu dute. Egundantzen diren mahats barietate guztiak eta lurraren erabilera moldeak berrikuntza horien emaitza dira.

Torrentejon aztertutako lur profilek argi eta garbi erakusten dute azken fase honetan eman den intentsifikazioa. Lursail terraztuen gainazalak, izan ere, kloro kontzentrazio handiak ditu, eta hori konposatu organokloratuak dauzkaten pestizidak edo herbizidak erabili izanaren zantzua izan liteke. Nitrogeno kontzentrazioak ere altuak dira, ongarririk organikoak botatzearen ondorioz.

Era honetan, Arabar Errioxako mahasti-paisaiaren erroak Erdi Aroan baldin badaude ere, esan daiteke bere egungo egitura Aro Berriko espezializazio prozesuaren emaitza dela: ardogintza industrialera bideratutako monolaborantza hedadura zabalak, eskala handiko ongarritze eta tratamendu-praktika estandarizatueta oinarrituta. Paradoxa dirudien arren, paisaia moderno hau da, hain zuzen ere, tokiko garapen agentziek "tradizional" gisa sustatu ohi duten eredua, bai ardoa bere jatorri geografikoaren arabera bereizteko labelak zehaztuz —azken hilabeteetan hautsak harrotu ditu Basque Wine marka bereizgarria sortzeko Eusko Jaurilaritzaren proposamenak—, baita enoturismoa bezalako jarduera gehigarrien bidez ere. Azken arlo honetan, Arabako Errioxako Mahastien Paisaia Kulturala UNESCOren Gizateriaren Ondare izendatzeko proiektuak aurrera egin ez badu ere, ekimena bera aski adierazgarria da ikusteko nola "tradizionala"ren nozioak eta tradizio horiei lotutako identitate kulturalak, sarri, oso garaikideak diren joera ekonomikoe-tan oinarrituta eraikitzen diren. ●



“Oraindik ere Gizarte Sailerak kondenatuta gaude, horixe baita gizon zuri burgesak ez direnen istorioak barnebiltzen dituen zakua”

JUNE FERNÁNDEZ

Hamar urte joan dira June Fernández (Bilbo, 1984) kazetariak, beste zenbait kiderekin, *Pikara Magazine* martxan jarri zuenetik. Kazetaritza feminista egitera bidean mugarri esanguratsua jarrita, kritikoa eta kokatutakoa den begirada darabil ordutik hainbat gairen bueltako eztabaidak, edo “meloia”, lantzeko. Meloiak, hala deitzen diete *Pikarako* erredakzioan “deseroso edo polemiko” izan daitezkeen eztabaidei. Azken hamarkadako uzta bildu eta meloi horietako zenbait bildu ditu kazetariak argia ikusi berri duen *Abrir el melón. Una década de periodismo feminista* (Meloia ireki. Kazetaritza feminista hamarkada bat) liburuan (Libros del K.O., 2020). Ezin izan gara errekolta dastatu gabe geratu.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA HODEI TORRES



Kazetaritza feminista hamarkada bat, hori liburuaren azpititulua. Aro bat ixteko erritualetik badu zerbait liburuak?

Bai, hala planteatu dut, guztiz. *Pikara*-ren hamar urteek kointziditu baitute, nolabait, nire bizitzako ziklo batekin. Ama izan naiz pasa den urtean, aurtan eszedentzia hartu dut, eta momentuotan *Pikara*rekin harremana irekita daukat, ez dakit nondik jarraituko dudana. Alde batetik erritualetik parte dago, baina bestetik, badago arrazoi bat askoz ere mundutarragoa dena, prosaiko agian: egun amatasun baimena hamasei astekoa da,



gutxi da hori, eta nik argi neukan alabarekin gehiago egon nahi nuela; baina era berean diru-sarrera gehiago behar nituen. Liburua motibazio bat izan zen niretzat, ahalbidetu baitit diru sarrera bat izatea. Badirudi emakumeoi kosta egiten zaigula diruari buruz hitz egitea, baita gure burua ondo saltzea ere. Eta ekonomikoa izan denez arrazoi bat, gertatzen zait gehiago kostatzen zaidala liburua defendatzea. Iruzurtiaren sindromea bere gorenean.

Kazetaritza feminista du ardatz liburuak. Alabaina, zertaz dihardugu

“kazetaritza feminista” diogunean? Zergatik ez deitu “kazetaritza”, zehaztapenik gabe?

Soilik “kazetaritza” ez deitzearen arrazoietakoa bat da mugimendu feministari aitortza egitea. Izan ere, feminismoari esker egiten dugu kazetaritza begirada konkretu honetatik, hizkera jakin batekin eta darabiltzagun iturriekin. Gainera, uste dut askotan uko egiten diogula “feminista” adjektiboari, badirudi etiketa hori ez dugula gustuko. Liburuaren prologoan ere, María Angulo Egeak dio bertan jasotzen dena kazetaritza ona dela, besterik gabe. Eta “egiten duguna

ez da kazetaritza militantea”, zioen Ana Requena Aguilar kazetariak ere berriki egindako elkarrizketa batean. Bada, nik uste dut badela militantea; kazetaritza era honetan egiten dugu mundua eraldatu nahi dugulako eta kazetaritzak horretarako bidea irekitzen duelako nolabait. Kontua da “feminista” adjektiboari estigma kentzea.

Kazetaritza feminista zer den, hori eztabaida potoloagoa da. Emakumeak informazioaren erdigunean jartzea, estereotipo sexistak iraultzea, hizkuntzaren erabilera ez sexista egitea... hasieran hor jartzen genuen arreta *Pikaran*. Gerora

konturatu gara kazetaritza feminista ez dela hori bakarrik, kazetaritza despatriarkalizatu behar dugula. Hor sartzen da hainbat aspektu zalantzan jartzea: eguneroko errutinak, enpresa informatiboaren egitura, komuna nork garbitzen duen... sakonagoak diren pila bat gauza.

Ireki dituzun zenbait meloi jasotzen ditu liburua. Horietako zenbait irekitzean sortu diren eztabaidak ez dira gutxi. Irakurleagoak eskatzen dizue lantzen dituzuen gaien inguruan posizionatzea?

Bai, eta askotan irakurleek posizionatzen zaituzte zu. Eztabaida oso polarizatueta, adibidez. Eta Espainiako Estatuan bederen, ikusten dugu nahiko bortitza den polarizazio testuinguru dagoela. *Pikararen* grina beti izan da eztabaida piztea eta kontzientzia kritikoa bultzatzea, eta niretzat frustragarria da jendeak zu mutur batean kokatzea, zuk zure burua hori ikusten ez duzunean.


Ana Requena, aipatutako elkarrizketan, esan zuen kazetaritza feminista egitea ez dela feministentzat kazetaritza egitea. Interesgarria iruditu zitzaidan. Zeren badirudi ase behar duzula kolektibo hori eta ezin duzula haserretu. *Pikaran* uste dugu gure hedabidea deserosoa izan daitekeela ez bakarrik feministotik at kokatzen direnentzat, baita feminismoaren barruan ere. Deserosotasun hori guretzat ere produktiboa delakoan gaude.

Egin dituzun lan guztien artetik liburuan sartu dituzunak aukeratzeko, zein irizpide erabili duzu?

Alde batetik, eztabaida intra-feministek lotutako "meloiak" batu ditut. Bestalde, niretzat erreferente diren feministak ikusgai egitea bilatu dut, izan horiek norbanakoak zein kolektiboak. Askotan oximoron iruditzen zaizkigun kontzeptuak bateratzen dituzten edukiei tokia eman nahi izan diet baita, adibidez: islam-queer, kristau feministak, feminista reggaetoi zalea... Beti gustatu izan zait heterodoxiaren alde egitea, edo super-koherentzia eta ditugun aurreiritziak zalantzan jartzea, eta hori islatzen da liburuan.

Liburuak badu epilogo bat, *liburu hau (ez) publikatzeko arrazoiak* izendatu duzuna. Diozunez, beldurrari eta segurtasun faltari egin behar izan diozu aurre liburua publikatu ala ez erabakitzerako unean. Nondik sentimendu horiek?

Nik uste nire genero sozializazioarekin harremana duela. Aipatutako iruzurtiaren sindromea oso erroturik dauka gu emakumeok. Ikusten nuen banuela ahots boikotatzaile bat nire baitan, eta hori berori azaleratzea, nire barnean emandako eztabaida plazaratzea, niretzat bada estrategia bat. *Kontrako Ezta-rritik* liburuan emakume bertsolariak aipatzen dituzten hainbat kontu lagungarriak izan zaizkit ohartzeko ez dela nire autoestimu faltarekin zerikusia duen zerbait, zeozko kolektiboak baizik. Ikusten dut nola orokorrean, emakume kazetariok, bertsolarien moduan, gaitasun gutxiago daukagun gure tarifak negoziatzeko, gure buruaren promozio ona egiteko... Zeren bai: kostatu egiten zait liburu hau promozionatzea. Horrek lotura dauka, nik uste, ahalduztzearekin.



'Perreatu' ezin badut, ez da nire iraultza, liburua biltzen dituen lanen artean goiztiarrenetarikoa denak, ohar bat darama. Bertan, orduko Juneren begirada zuzentzen duzu, urteek eman dizuten jakintza eta begirada konplexuago batetik. Nolakoa izan da hamar urte atzera egin

eta iraganeke Junerekin aurkitzea?

Ohartzen zara zenbait gauzetaz, eta konturatzen zara ikasi dituzula hainbat gauza, hizkuntzaren erabileraren inguruan adibidez. Erreportajeetako batean, adibidez, 'mulata' hitza darabilt, eta gerora ikasi nuen 'mulata' hitza erdeinuakoa dela, kutsu koloniala duela, eta 'mestizo' esan behar dugula.

Aipatu duzun testuari dagokionez, nire blogean publikatu nuen, inguruko jendeak iseka egiten zidalako edota kuestionatzen ninduelako, feminista izanik reggaetoiak gustuko nuelako. Testuak ikaragarritzko oihartzuna izan zuen. Jende askok esan zidan beren ahalduztzerako garrantzitsua izan zela, aldarrikatzeko reggaetoi zaletasuna. Nik be-

zalako emakumeek eskertu zuten testu hori; gazteak, zuriak, europarrak... zirenek. Baina kritikak ere jaso nituen. Latinoameriketarik jaso nuen kritikaren bat esanez nire testuak kutsu arrazista izan zezakeela, Kubara sexualki askatzera doan emakume zuriarena. Horrek kezkatu ninduen eta horregatik iruditzen zait interesgarria autokritika egitea, kritika horiek onartu eta esplizitatzea.

Artikulua liburuan sartu edo ez, zalan-tza egin nuen. Baina azkenean sartzearen alde egin nuen, arrazoi batengatik: iruditzen zait tranpa batean erortzen naizela, neuk ere jotzen dudala gaien arteko hierarkia egitera, horren arabera baloratuz zer den kazetaritza serioa eta zer ez. Badirudi harroago sentitzen naizela "gai serioen" inguruan idazteagatik aitortza jasotzen dudanean, agian feminismoari horren lotuak ez dauden edo unibertsalagoak diren gaiak izanik horiek. Aipatu testuak izugarritzko oihartzuna izan bazuen izango du zentzu bat, konektatu baitu emakume askoren zerbaitekin eta agerian utzi baitzituen reggaetoiaren kritiken atzean sexualitatearen inguruko aurreiritziak eta etnozentrismoa daudela, beste kultur adierazpen matxistekin agertzen ez direnak. Horrek balioa dauka, eta balio hori eman nahi nion.

Aipatu duzu nola gai batzuk garrantzitsuagotzat jo ohi diren, eta nola horiek diren feminismoarekin lotura gutxi izan ohi dutenak. Feministotik gutxi izan ohi duten gaiak garrantzizkoen kontsideratzeko joerak ez dirudi kasualitatea denik.

Noski ezetz. Bere garaian, nire blogean asko idatzi nuen mikromatxismoei buruz edota egunerokoan patriarkatuak dituen islei buruz, eta gogoan dut El Salvadorren lan egiten duen gizonezko kazetari euskaldun batek horrelako zeozko esan izana: "Zu ileei eta antzerakoei buruz eztabaidan eta idazten ari zaren bitartean, hemen emakumeak kartze-laratzen dituzte abortatzeagatik, feminizidioak daude...". Gure kezkak hierarkizatzea, esatea zerk izan behar duen garrantzitsu eta zerk ez, patriarkatuaren beste estrategia bat dela uste dut. Feminismoaren aldarria da pertsonala politikoa dela, eta kazetaritzan gure sentipenez, gure intimitateaz, gure gorputzez hitz egitea kutsu politiko batekin baliotsua da. Jendeak asko eskertzen du, bisita mordoa ditu... Baina esan bezala,



nabaritzen dut batzuetan ni ere tranpa horretan erortzen naizela, eta balio gehiago ematen diot, demagun, letra larritzko politikaz aritzeari.

Hierarkizazioaren adierazle da Ana Requenari gertatutakoa. Bera ekonomia kazetaria da, feminismoan aditua izateaz gain, eta emakumeen sexu ahalduentzeaz liburua idaztea erabaki zuenean lagun batzuek esan zioten: "Ez ezazu idatzi horri buruz, zu kazetari seriosa zara-eta". Esango nuke nire kasuan kontrakoa gertatu dela, ni naizela "la pikara", regaetioaz edota ilea zerora moztea bezalakoez idazten duena. Eta agian nire paranoia da, baina sentitu izan dut nola-baiteko beharra ba frogatzeko nazioarteko kazetaritza jorratzeko gai naizela edo kazetaritza serioa ere egin ahal dudala.

Hamar urteko tartean asko aldatu da panorama kazetaritza alorrean ikuspegi feminista barnebiltzeari dagokionez. Feminismoaren "boom"-ak eragin du eduki feminista gehiago egotea, baina uste duzu

harago doan aldaketarik ari dela gertatzen?

Agian denbora beharko dugu hori ondo aztertzeko. Esango nuke kazetari feministak beti egon garela hedabideetan baina orain zilegitasun handiagoa lortu dugula. Kazetaritza digitalarekin, *Google Analytics*-en bidez, frogatu dugu gure gaiek interesa eragiten dutela. Agenda pixka bat aldatu da. Alabaina, eta salbuespenak salbuespen, gaien hierarkizazioa ez da aldatu; alderdi politikoen politika da oraindik ere egunkarietako azaletan agertuko dena. Eta gu oraindik ere Gizarte Sailera kondenatuak gaude, horixe baita gizon zuri burgesak ez direnen istorioak barnebiltzen dituen zakua. Alegia, aldaketak egon dira baina ez errotikoak, ez da iraultzarik eman oraindik. Egiturak patriarkalak izaten jarraitzen dute.

Zentzu horretan, zeintzuk uste duzu direla kazetaritza feministaren erronkak?

Egiturak eta errutinak eraldatzea izan daiteke erronketako bat. Uste dut ba-

lore edo dinamika patriarkal asko oso errotuak daudela, baita *Pikara* bezalako hedabide feminista batean ere: presaka ibiltzea, lehiakortasuna... Guri interesatzen zaigu zenbait aspektu zalantzan jartzea, aditu eta testigantzen arteko dikotomia kasu: Zergatik indarkeria matxista bizi duen emakumea ez da aditua? Beharbada hamar urte daramatza prozesu judizialean, mordoia ikasi du, diskurtso bat dauka, bada zergatik ez dugu uste aditua denik? Edo gutxienez aktore politikoa, baina ez soilik testigantza huts. Eta aditua aditu bada seguraski izango da indarkeriak bere bizitzan ere eragina izan duelako. Horrelako gauzetan arreta jartzea interesatzen zaigu.

Ni kezkatzen nauen beste kontu bat da Mari Luz Estebanek *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* liburuan dioena: feminismoan adituen kultura gailendu dela nolabait, eta diskurtsoaren ekoizpen produktiboaren kultura galdu edo ahuldu egin dela. Hori hedabideetan ere gertatzen delakoan nago. Guk publikatu izan ditugu kolektiboen artikulua asko, baina zutabegile batek oihartzun gehiago dauka testu kolektiboen ondoan. Horri buelta ematea izan daiteke daukagun beste erronketako bat.

Nola eragin du feminismoak kazetaritza egiteko zure moduan?

"Zaintzak erdigunera", feminismoan bogan dagoen lelo horrek kazetaritzaren kasuan zer esan nahi duen hausnartzea beste erronka bat dela esango nuke. Adibidez, *El País* egunkarian lan egin nuenean, elkarriketa elkarriketatuari inoiz ez pasatzeko araua zegoen. Bada nik uste feminismotik hori auzitan jarri dezakegula, ulertuz norbera dela bere historiaren jabe eta pertsona batek zurekin historia hori partekatzen duenean konfiantza ariketa bat egiten ari dela. Kezkatzen nau joera banpirizatzaileak: batzuetan istorioak nahi ditugu, eta tematzen gara istorioen bila, eta "behar dut sexu indarkeria bizi izan duen emakume bat" eta "behar dut salerosketaren biktima bat" aritzen gara, baina hausnartu beharko genuke zer eragin izango duen beste aldearengan. Kazetaritza eraldatzailea egin nahi badugu ez da bakarrik irakurtzen gaituenarengan eragina izateko; prozesu horretan parte hartzen dutenentzat ere eraldatzaile izan behar du, edo bilatu behar dugu, gutxienez, prozesu horretan parte hartu dutenei kalterik ez eragitea. ●



Armeniaren eta Azerbaijanen arteko liskar armatuak irailaren 27an hasi ziren Karabakh Garaiko kontaktu lerroan. Berrehala, bando bakoitzak bere hildako militarren eta zibilen berri eman zuen. Lehen erasoan ondorioz, Armeniak eta Artsakh Errepublikak lege martziala eta mobilizazio osoa ezarri zituzten. Azerbaijanek, berriz, lege martziala eta etxeratze-agindua. Irailaren 28an, Azerbaijanen mobilizazio partzialera deitu zen.

Zein da, kasu honetan, erantzulea? Erantzun zaila du galderak, guda guztie-

tan bezala informazio kontrajarriek eta propagandak estaltzen baitute guztia. Armeniaren esanetan, Azerbaijanek hasi zuen erasoa, hainbat hilabete lehenago planifikatutako operazio baten emaitza dela dio. Azerbaijanen arabera, Armenia da gatazka lehertzearen erantzulea. Haien esanetan, Armeniak aurretik ere askotan urratu baitu su etena.

Hainbat herrialdek eta Nazio Batuen Erakundeak hasieratik gaitzetsi dute gatazkaren areagotzea eta negoziazioetara itzultzeko deia egin dute. Beste herrialde batzuk, aldiz, argi agertu dira alde jakin baten alde. Afganistan, Pakistan

eta Turkia, adibidez, Azerbaijanekin le-
rrokatu dira.

Aipagarria da Turkiaren rola, Azerbaijanian babes politiko osoa adierazteaz gain laguntza militar handia eman dio eta. Gainera, zenbait iturriren arabera, Turkiak Sirian al-Assadaren aurka erabili dituen mertzenarioak sartu ditu Azerbaijanen.

Interbentzioa Erdoganaren menpeko Turkia oldarkorraren sintomatzat interpreta daiteke. Siriatik indartuta irten da Erdogan, Libian eta Mediterraneo Itsasoan eskua sartu du eta presio mekanismoak ezarri ditu. Azken batean, Turkiak

KARABAKH GARAIA

Lehertu da berriro Armenia eta Azerbaijanen arteko guda zaharra

Iraila amaieran berriz ere infernuko atea ireki dira Karabakh Garaian. Azerbaijango eta Artsakh Errepublikako indar armatuen (Armeniaren laguntzarekin) arteko talka bi bandoetako hildako kopurua puzean ari da egunetik egunera. Gatazkaren iturburua ez da atzo goizekoa eta geopolitikaren xake taulak pisu handia du.

 OIER ZEBERIO

nazioarteko politikan bere posizioa indartu nahi du.

Gatazka armatua lehertu bezain pronto, garbi ikusi zen bi aldeak beren helburuak betetzeko eginbeharreko guztia egiteko prest zirela. “Guk aurrera jarraituko dugu, iritsi behar dugun lekuraino iritsiko gara”, zioten gatazka lehertu eta pare bat Azerbaijandik. Armeniarren kasuan ere, garbi geratu zen, kosta ahala kosta, lurraldea defendatzeko asmo irmoa zutela.

Ikuspuntu militarretik, Azerbaijan Armenia baino indartsuagoa da gaur egun. Armeniak, ordea, indar armatu profesio-

nalak edukitzeaz gain, Karabakh Garaiko orografia eta borroka sentimendua (desagerpenarekin loturikoa) ditu aldeko. Edonola ere, horrelakoetan herritarrek izaten dira lehen biktimak eta honezkero bi bandoetan ehunka zenbatzen dira hildakoak, iturri ofizialen arabera.

Gatazkaren lehen lerroan kazetarien presentzia oso urria denez, zaila da zehaztea modu fidagarrian zer aurrerapen egin diren. Urriaren erdialdean, iturri batzuen esanetan, bi bandoak ez aurrera ez atzera geratu dira, nahiz eta Azerbaijanek lurralde zatiak eta zenbait herri txiki berreskuratzea lortu.

Zibilen aurkako erasoak bi aldeek abiatu dituzte, zenbait herri eta hiriri airez eraso eginez. Adibidez, Artsakh Errepublikako hiriburu Stepanakert irailaren 27tik aurrera etengabe bonbardatu dute. Kalteak geroz eta nabariagoak dira hirian. Bestetik, urriaren 11n, armeniarrek Ganja hiri azerbaijandarra bonbardatu zuten. Bi kasu hauek askoz ere zabalagoa den bonba bidezko erasoaldiaren adibideak baino ez dira.

Urriaren 14ra arte argitaratu diren datuen arabera, Karabakh Garaiko biztanleriaren erdiak, 70.000 eta 75.000 pertsonaren artean, etxebizitza atzean utzi

behar izan du. Bi aldeetako datuak kon-tuan harturik, 80 bat zibil hil dituzte eta ehunka zauritu. Baina foku mediatikotik aparte geratzen diren gudetan, zifra al-tuagoa izan ohi da.

GATAZKAREN ERRO HISTORIKO, POLITIKO ETA SOZIALA

Gaur egungo gatazka militarra zerga-tik heldu diren ulertzeko, gogora ekarri-ko dugu zeinbat une historiko, politiko eta sozial garrantzitsu. Hasteko, geno-zidio armeniarra eta Otomandar Inperioa-ren gainbehera.

Armeniaren eta Azerbaijanen arte-ko etsaitasuna azaltzen duen gertaera nagusienetako bat I. Mundu Gerraren testuinguruan eginiko "genozidio arme-niarra" da, 1915 eta 1923 bitartean Oto-mandar Inperioaren parte zela. 800.000 armeniarrek baina gehiagok galdu zuten bizitza kultura armeniarra desagerra-razteko asmoz egindako sarraski horre-tan. Adituen arabera, lehen genozidio modernotzat har liteke.

Aritz Saidi Olaortua nazioarteko ana-listaren arabera, otomandarrek haiena

ez zen fedearen zaleak eta etnikoki ez-berdinak ziren pertsonak deuseztatu zi-tuzten. "Horretarako turkiarrek, mertze-nario gisa, beste batzuen artean, azeriak erabili zituzten", dio Saidik.

Sarraskiak gaur egun ere indar handia duen trauma nazionala eragin zuen Arme-nian. Populazio armeniarra ia ezabatzea lortu zuten turkiarrek, eta ondorioz, gaur egun ere mesfidantza eta gorroto handia nagusi dira turkiarrekiko eta azeriekiko.

SOBIETAR BATASUNA LURRALDEEN JABE

Otomandar Inperioaren gainbeherak (1923an desagertu zen) Sobietar Batasu-naren indartze prozesuarekin egin zuen topo 1920. hamarkadan. Gizarte kapita-listen aurrean bestelako antolaketa eta iruditeria ekarri zituen Lenin buru zuen Errusiako Iraultzak 1917an, eta hortik aurrera, blokeen arteko talka gertatzen hasi zen. Armeniarrak eta azeriak alde so-bietarraren barruan lotu ziren.

Gaur egun Artsakheko Errepublika gisa ezagutzen dena, sobietarrek Azerbai-jan barnean sartu zuten eskualde autono-

ZONALDEKO EGOERA AZKEN OFENTSIBAREN AURRETIK

Artsakh Errepublika Kaukaso he-goaldean dago, Armenia eta Azer-baijanen artean. Ez du nazioarteko aitortzarik, baina Karabakh Garaia lurraldearen gehiengo kontrola-tzen du. Stepanakert da hiriburua.

Historikoki, gehiengo armenia-rra izan du (kristauak) zonalde ho-nek, nahiz eta azerien (musulman xiitak) bizileku ere izan den. Na-zioarteko harremanei dagokienez, Azerbaijanek harreman historiko eta politiko estuak ditu Turkiarekin. Bestalde, Armeniak lotura indar-tsuak ditu Errusiar Federazioarekin. Zehazki, Errusiak 102. base militarra du Erevanen, Armeniako hiriburu-tik 120 kilometro iparraldera, eta defentsa akordioa dute sinatua.



ITURRIA: WIKIPEDIA

Turkian bizi diren
azerbajandarrak Istanbulen,
Turkiako eta Azerbaijango
banderak eskutan,
2020ko uztailaren 19an.

REUTERS PHOTO



mo gisa 1923an, gehiengoa historikoki armeniarra izan arren. Zergatik hartu zuen Moskuk erabaki hau? Saidiren arabera, “Otomandar Inperioari eginiko keinua izan zen. Turkia berria Sobietar Batasunaren inguruan geratzeko saiakera zen”.

Sobietar Batasunaren barruan elkarbizitza indartu eta bi komunitateen arteko elkarbizitza sustatzeko lan garrantzitsua egin zen. Saidiren iritziz, “nortasun sobietarra ezarri zen eta ezaugarri abertzale propioak, neurri batean, alde batera utzi ziren. Bakoitzaren berezitasunak mantendu ziren, baina nortasun goren hau indartzean tentsioak mugatu ziren”.

SESB-REN DESEGITEA: TENTSIO ETNIKOEN GORAKADA ETA GERRA

1980ko hamarkadaren amaieran, SESB-ren ahultze eta irekitze prozesuarekin loturik, armeniarren eta azerien arteko tentsio etnikoak nabarmen areagotu ziren. Karabakheko armeniarrek “gunea azerifikatzeko” saiakerak salatu zituzten, eta tentsio etnikoek bultzaturiko hilketen eraginez, independentziaren aldeko sentimendua indartu zen.

Zentzu honetan azpimarratzekoa da 1988ko otsailaren 27an Sumgait hiri azerbaijandarretik (Baku hiriburutik 25 kilometrora iparraldean) armeniarren aurka egin zuten eraso. Sobietarren arabera, 32 armeniar hil ziren ehiza saio hartan, nahiz eta egiazko kopurua altuagoa izan daitekeen. Gertaera honek, eta bereziki bortizkeria mailak, armeniarren artean beldurra areagotu zuen.

Erantzun gisa, Karabakh Garaiko Gobernauak galdeketa deitu zuen 1991n. Baietak irabazi zuen, eta erregioak 1992ko urtarrilaren 6an independentzia

aldarrikatu zuen. Honek, jakina, gatazka areagotu zuen, eskala handiko gerra bihurtu arte. 1994an, Errusiaren bitartekotasunari esker, su-etena sinatu arte.

Aritz Saidiren esanetan, “gerra horretan, Artsakh, Azerbaijan barruko uharte gisa ulertu behar dugu. Hasiera batean, ez zegoen inongo komunikazio fisikorik lurralde horren eta Armeniaren artean. Baina garaipen militarren eraginez, armeniarrek zubi geografikoa eratu zuten Artsakh eta Armeniaren artean”.

ABERTZALETASUNA: GATAZKA INDARTZEN DUEN FAKTOREA

Azerbaijanen bizi den azeri askok, gehienak ez esateagatik, Turkia anai gisa ikusten du. Bi estatutan banatutako nazio bakarraz hitz egiten dute. Bestetik, 1990eko hamarkadako gudan izandako porrotengatik, azeri asko minduta dago, Azerbaijanen tamainaren herena den herrialde batek garaitu zituen eta.

Armeniaren kasuan, abertzaletasuna genozidioarekin dago lotuta. Historikoki, edozein eraso, hil ala biziko gai gisa hartu izan dute. Judutarren antzeko kasua da. Bestetik, Eliza kristauak izugarritzko boterea du, eta sentimendu nazionalaren transmisio prozesuan berebiziko garrantzia du.

Orain arteko guda modernoan artean 30.000 pertsona inguruk galdua dute bizitza gatazka honetan. Gainera, guztira milioi bat pertsonak utzi behar izan dute bizilekua. Armeniarrek Karabakh Garaia kontrolatzea eta lurraldea eta Armenia batzen dituen espazioa bereganatzea lortu zuten.

Artsakh inguruko zubi geografikoa eraikitzean, azerien nahitaezko lekualdatzeak agindu ziren. “Azerien aurkako garbiketa etnikoak izan ziren, zalantzarik gabe”, dio Saidik. Bestalde, Saidik ez du zalantzarik “genozidio txikiak” bi aldetan egin zituztela baieztatzen.

Armeniaren garaipenaren ostean, ordea, munduko estatu gehienak Azerbaijanen alde lerrotatu ziren, haren lurraldearen osotasuna babesten zutela argudiatuta. Zentzu honetan, Abjasia, Hego Osetiak eta Transnistriak bakarrik onartu dute Artsakh Errepublikaren estatusa, guztiak ere independentzia aldarrikatu eta babesik gabe geratu diren herriak.

Honez gain, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak, lau erresoluzioren bidez (822, 853, 874 eta 884), Azerbaijanen aldarrikapenei arrazoia eman die. Azpimarratzekoa da Errusiar Federazioak arrazoia Azerbaijanari ematea. Horrek, izugarritzko eragina du gaur egungo egoeran. Errusiar Federazioak Artsakh Errepublika Azerbaijan dela onartzen duenez, interbentzio militarren bat gertatzeko aukerak nabarmen jaisten dira.

1994an su-etena sinatu arren, hurrengo urteetan hildakoak eragin zituzten hainbat guda txiki izan ziren, ordea. Zentzu honetan, Saidiren esanetan, ohikoa izan zuten hildako soldaduen gorpuak edo artilleria eraso txikiak ikustea.

2016KO GERRA ETA ONDORENGO EGOERA

2016ko apirilaren 1 eta 5 bitartean, Karabakh Garaiko eta Azerbaijango indar armatuen arteko talka izan zen; 1994tik okerrenak. AEBetako Estatu Departamentuaren arabera, guztira 350 pertsona hil ziren lau eguneko gudan. Iritzi batzuen arabera, kasu honetan ere, garai-leak armeniarrek izan ziren.

Une honetatik aurrera, estrategia militarra aldatzeaz gain, gastu militarra handitu zuen Azerbaijanek. Herrialde hori izan zen drone israeldarrak erosten aurrenetariko, adibidez. Gaur egungo gerran eragin handia izaten ari diren gidaririk gabeko hegazkin hauek abantaila militar nabarmena ematen diote Azerbaijanari zenbait kasutan. ●

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA JOMUGAN AMA ESKOLETAN

Herritarren eta hautetsien presioak eragina izan du

Uztailen, Hiriburuko Baste Quieta eskola publikoan euskara hutsezko esperimentazioa abiatzea errefusatu zuen Bordeleko errektoretzak, eta horrek murgiltze ereduaren etorkizuna kolokan jarri zuen. Ordutik geroztik, herritarrek, hautetsiek eta euskalgintzak protesta ugari egin dute euskarazko irakaskuntza onar dadin Baste Quieta ikastetxean, baita ondorengo eskarietan ere. Urriaren 15ean, Bordeleko Akademia errektoreak iragarri du Baste Quieta ikastetxeko esperimentazioa onartuko dutela eta ondorengoak ez dituztela oztopatuko.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA  KEPA ETCHANDY

Urriaren 15eko arratsaldean pozik ziren eskola publikoan euskarazko irakaskuntza defendatu duten eragileak. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) biltzar nagusian eman zuen albistea Bordeleko Akademiako errektoreak. Baste Quieta ikastetxeko 3 eta 5 urte arteko haurrek euskarazko murgiltze ereduari aritzeko aukera izango dute. Noiz hasiko diren ez dute erabaki oraindik. Alabaina, errektoreak adierazi zuen esperimentazioa nola ezarri, baldintzak aztertu behar zirela. EEPko lehendakari den Antton Kurutzarrik iragarri zuen Frantziako Hezkuntzarekin hitzartu dutela 2020 eta 2021 urteetako murgiltze esperimentazio eskari guztiak aztertuko zituztela.

Kurutzarriren ustez, Frantziako Gobernuaren jarrera aldaketaren arrazoi nagusia batera aritzea izan da, erakunde eta kolore askotako hautetsiak eta herritarrak batera jardutea.

Azken protesta jendetsua urriaren 10ekoa izan zen, Baionako kaleetan egindako giza katea. Aldarri berberak beste kale batzuk ere hartu zituzten eta protestak izan ziren Britainian, Alsazian, Korsikan, Flandrian, Arpitania, Katalunian eta Okzitania. Urriaren 15eko berri ona jaso baino lehen, hala adierazi zion ARGIA-ri Ikas-Bi elkarteak Céline Etxebarne:

“Guretzat saretzeak oso garrantzitsuak dira, justuki Korsikan ere ari dira murgiltze sistema jarri nahian, eta badakigu Britainian ere nahiko luketela”. Dena den, egoerak oso ezberdinak direla argitu du.

HEMERETZI ESKOLATAN MURGILTZE EREDUA

Frantziako ikastetxe publikoetan legez debekatuta dago euskara hutsean irakastea, aldiz, eskola publiko elebidunak martxan dira 1983az geroztik. Gaur egun 100 ikastetxe inguru daude eredu horretan, ikastetxe guztien erdia edo. Dena den, duela hamabi urtetatik hainbat eskolatan euskara hutsean ikasteko ate bat zabaltzen da: euskarazko murgiltze eredu. Guraso elebidunen elkarteak dira Ikas-Bi eta Biga Bai, eta murgiltze eredu horren defentsan ari dira, beste hainbat mugimendurekin batera: “Onura handiak ikusten dizkiogu murgiltze esperimentazioari”. Hala azaldu du Biga Bai elkarteak Marie-Andrée Ouretek. Bat dator horretan Etxebarne: “Konturatu ginen eredu elebidunean euskaraz mintzatzen hasia asko kostatzen zitzaizela, eta ama eskoletan euskarazko murgiltze ereduak hori errazten du”.

Baina zer da murgiltze eredu? Murgiltze esperimentazioak 2008an abiatu zituzten. Garai horretan, Frantziako Go-

bernuak lege bat atera zuen esperimentazio moduan, denbora batez klaseak beste hizkuntza batean ematea ahalbidetuz. Lege hori baliatuz, euskarazko murgiltze eredu abiatu zuten Donibane Garazin eta Azkainen, 3 eta 5 urte bitarteko haurrekin. Etxebarnek azaldu duenez, murgiltze eredu inplementatu ahal izateko hezkuntza komunitate guztiaren onespina beharrezkoa da: “Denen adostasuna behar da, talde pedagogikoarena, gurasoena, irakasleena, herriko etxearena...”. Horrez gain, “akademiak eta inspektzioak” ere baimena eman behar dutela gaineratu du: “Lan handia eskatzen du, bereziki guraso elkarteena”. Lan horren emaitza da une honetan hemeretzi ikastetxetan euskarazko murgiltze eredu izatea. Uztailen berriz, atzera bota zuten eredu hori legez kontrakoa dela argudiatuta.

Baina zergatik? Alde batetik, 2019an lege bat atera zuten ama eskolak derrigorrezko egiten dituen, orain arte 6 urtera arte ez zen derrigorrezkoa eskolaratzea. Bestetik, frantses konstituzioaren arabera, “derrigorrezko hezkuntzan” beharrezkoa da frantsesa bermatzea. “Legezko arrazoi bat eman dute, baina zuzena ez dena”, hala azaldu du Ouretek. Izan ere, legezkoa zen eredu bati jarraiki ari zuten dirak orain arte murgiltze ereduaren eta



Irakaskuntza publikoan, 3 eta 5 urte arteko haurrak, hemeretzi eskolatan euskarazko murgiltze ereduan ari dira. Uztailean hogeigarrenari ezetz esan zion Frantziako Hezkuntza Ministerioak. Urriaren 15ean iragarri zuten murgiltze esperimendua onartuko zutela.

errefusari asmo politikoak ikusi dizkio- te Etxebarnek eta Ouretek. Hala ere, ez ditu ezustean harrapatu Hiriburuko Bas- te Quieta eskola publikoari emandako ezezkoak: “Irisarriko eta Ainhoako esko- lak izan dira murgiltze eredura gehitzen azkenak, eta hauei ere lehenengo ezezkoa eman zieten, baina borroka luzearen os- tean lortu zuten murgiltze eredua ezar- tzea, beraz, aitzin keinu batzuk baziren”.

Murgiltze ereduarekin oso pozik dau- de irakasle eta gurasoak, izan ere, onura handiak ikusten dizkiote. “Ikasleen maila neurtzeko galdeketak egin dizkiete ira- kaskuntza osoan, eta emaitzak hobeak izan dira oro har murgiltze ereduan eta eredu elebidunean ari direnen artean. Frantses hizkuntzaren azterketan ere emaitza hobeak lortu dituzte bi eredu horietako haurrek”. Ouretek hiru haur ditu eta azkena murgiltze ereduan aritu da:

“Zinez diferentzia ikusi dut, anitz lagun- tzen du eta biziki fite ari dira lehen urte- tik. Ikusten da euskararekin aiseago mol- datzen direla murgiltze ereduan”. Izan ere, eredu elebidunean klaseen erdiak euskaraz eginagatik, jolas ordua, jangela eta gainerako ordu libreetan frantsesez aritzen direla nabarmendu dute: “Murgil- tze ereduan irakasle bakarra izaten dute eta harekin uneoro egiten dute euskaraz”.

IRAKASLE EUSKALDUNEN FALTA

Murgiltze eredu horrek beste behar ba- tzuk ere sortu dituelakoan daude, tar- tean, irakasle euskaldunen beharra. Azken urteetan irakasle eskasia handia zegoela diote biek, eta oztopo handia zela euskal irakaskuntzan aurrerapau- soak egiteko. Alabaina, eta Euskararen Erakunde Publikoaren lanaren bitartez, euskaraz irakatsiko duten irakasleen for-

makuntza bultzatu da azken urteetan eta horren fruituak noiz ikusiko zain zeuden. Esperotako fruitu horiek, aldiz, ez dira iritsi. Hamabost irakasle euskaldunek lortu dute irakasle postua, eta horietatik hamaika frantses irakaskuntzara bidali dituzte: “Erabaki dute ez dela euskaraz irakasteko irakasle gehiago behar, bai or- dea frantses irakasleak”. Hala azaldu du Ouretek, eta gaineratu du euskarazko ge- letan 30 haur inguru daudela eta hori ez dela ikasteko modu egokia. Gainera, mur- giltze ereduan dauden ikastetxe batzuek, euskarazko irakasle falta dela-eta, mur- giltze eredua bi urtez soilik egiten dutela dio, eta hiru urtera pasatzeko nahia era- kutsi arren, irakaslerik ez dietela eskaini salatu du. Bat dator horretan Etxebarne: “Euskarazko irakasleak ordezkatzeko ere zailtasun handiak daude, eta frantses ira- kasleak ordezkatzeko dituzte”. ●

BABESLETZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Eskaini euskara
lehen hitza euskaraz!

ARGIA 1919 · 2020

Argien (eta ilunen) polizia



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1667. Luis XIV.aren erregel-dian, Colbertek hiriburuko polizia lotinantaren postua sortzeko agindua eman zuen. Hala, Paris izan zen hiri polizia talde bat sortzen lehena, baina polizia egitura modernoak, Parisen zein Europako beste hiri nagusietan, hurrengo mendeant antolatuko zituzten, Argien mendeant. Horrenbestez, ideia ilustratuek eragin handia izan zuten poliziaren antolaketa berrian, eta horixe erakutsi nahi du Frantziako Artxiboan 2021eko urtarrila bitartean zabalik dagoen *La police del Lumières* (Argien polizia) erakusketak. 200 bat dokumentu original bildu eta xehetu dituzte horretarako.

XVIII. mendean polizia profesionalizatu eta espezializatu egin zen; orduan sortu ziren lehen detektibeak. “Ordenari eusteko” aterki zabal eta lausoaren azpian, lan eremu asko egokitu zitzaizkion polizia berriari: lan arauak kontrolatzea, osasun publikoa zaintzea, delituak saihestea, pertsonen eta gaien zirkulazioa hobetzea... Ideia ilustratuen optimismoarekin bat eginez, polizia hobekuntzarako instituziotzat jotzen zuten, gizakien zorientasuna bermatzeko tresna ia zientifikotzat, aurrerapenerako bitartekotzat. Gainera, beste eremu batzuetan egin ziren aldaketak lagun izan zituen poliziak: kale-argiteria hobetzeak eragina izan zuen segurtasun publikoa zaintzeko, adibidez, eta dokumentuen




‘POLIZIAREN ATXILOKETA’ (1757), JEANRAT-EK EGINA ETA J.C. DUFLOS-EK GRABATUA.

eta artxiboen antolaketa sistematikoak ere lana erraztu zien.

Hala ere, argiteria berriaren planoez edo agiri administratibo txukunez gain, erakusketak bestelako dokumentuak ere biltzen ditu: poliziaren aurkako iritziak, mendeak aurrera egin ahala ugaritu zirenak. Rousseau, Diderot, Sade eta beste ilustratu ezagun eta ez hain ezagun batzuen kritikak ere bildu dituzte erakusketan – abesti satirikoren bat barne-. Desberdinkeria nagusi zen gizartean, poliziaren egitura ez zen bestelakoa. Institutio opakoa, ustela eta arbitrarioa zela zioten kritikoei,

eta poliziek gizarteko “arrisku taldeekin” edo “jendilajearekin” sistematikoki zuten muturreko jarrera bortitz eta bidegabea salatu zuten: prostitutak, atzerritarrak, gutxiengo erlijiosoetako kideak, lapurrak, emazte “libertinoak”, gaixoak, eskaleak...

Beraz, Parisko erakusketak Ilustrazio garaian polizia goitik behera aldatu zela azaltzen du, bere argi-ilunekin. Eta hausnarketa bat egitea ere proposatzen du: zer eragin izan dute aldaketa horiek egungo polizian? Hau da, zenbat aldatu da (edo zer gutxi aldatu da) Argien mendeko instituzio ez hain argia? ●



2.000 urteko neurona beiratuak

Vesubio sumendiaren erupzioak biktima (eta aztergai) ugari utzi zuen, baina aurtengo urtarrilean Herkulanon topatutako indibiduo berezia da: erupzioak tenperaturak bat-batean izugarri igotzea eragin zuen eta, gero, oso azkar jaistea; ondorioz, biktimaren garezur barruko ehun batzuk beiratu geratu ziren. Napoliko Federico II unibertsitateko

ikerlariek duela 2.000 urteko neuronak bere horretan gorde direla baieztatu dute teknologia berriak erabiliz. Emaizak *Plos One* aldizkarian kaleratu dituzte, baina hemendik aurrera ikerketa gehiago egiteko bide emango dute; oso gutxitan gorde dira egitura neuronal hain zaharrak, eta funtsezkoak izango dira Antzinaroko nerbio sistema zentrala aztertzeko. ●

Ilargiak markatzen du Jakobaren agenda

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Badira eguzkiari begira bizi diren jendeak. Asteko agenda argi-izpi horien arabera antolatzen dutenak. Urte osoan ekhiaren bila ibiltzen direnak. Beste batzuek, ordea, ilargiak esandakoari egiten diote jaramon. Hark adierazten die zer, noiz eta nola. Itsasoak mugiarazteko gai denak astinduko ez ditu bada gure baratze, lorategi, fruta-arbola eta basoak? Gauero ikusten dugun ilargia bera bada ere, astero, hilerro eta urtero ez da egun berdinetan mugitzen eta horregatik egin du Jakoba Errekondok *Ilargia eta landareak agenda 2021*.

Laugarren urtez kaleratu du ARGIAK *Bizi Baratzea* proiektuaren barruan ilargiaren agenda. Lurrari eta landareei lotua, Jakoba Errekondoren jakintzak Antton Olariagaren esku finez ilustratuak. Aurten garaian garaiko barazkiei erreparatu die egileak, hilabete bakoitzaren sarrera sasoi horretan bertokoak diren barazkiei emanez. Jaten duguna gara, baina ba al dakigu benetan zer jaten dugun? Zer den kalitatezkoa? Bertokoa eta sasoiakoa. Eta hortik dator kigun hurrengo galdera: ba al dakigu gaur egun zer den bertokoa? Hemengo izateko garaikoa behar du eta agenda honek lagunduko digu garaian garaiko barazkiak zein diren ezagutzen edo go-

gorarazten, fruitu eta barazkien izen eta marrazkiekin jolastuz.

2021eko berezitasun moduan dator, bestalde, asteroako lan berezi bat, konkretua, orain arte jaso izan ez dugun tarea zehatz bat, justuki egun horietan egiteko egokia. Hilabete osoan egiteko lanak ere azalduko dira hilaren aurrenean, "baratzea", "fruitu baratzea", "basoa" eta "lore baratzea" ataletan sailkatuta; eta beti ilargiak ematen dizkigun pistei segika.

Urteroko laguntza bilakatu da etxe askotan agenda hau eta, aurten, betiko jarraitzaileei jaso nahi dutena eskaintzeaz gain, ohiko agenda erabiltzaileen-ganaino iristeko helburua du. Eman zaio hitzorduak eta oharra idazteko espazio gehiago, tamainaz handixeagoa da eta hala, baratzean aritu ez arren ilargiari eta landareei buruzko jakinmina duenari, bere ohar-liburuxka moduan soilik erabiltzeko aukera emango dio.

Internet bidez erosi dezakezu azoka. argia.eus webgunean, edo 943 37 15 45 telefonora deitu.

2021ean erabili agenda. Aurten baratzean egindakoak idatzita gordez gero, hurrengo urtean errazago pentsatuko dugu uzta hobea nola jaso. Ilargian egotea baino hobe baita ilargiari begira egotea. ●



ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Kalitatezko euskal hedabideak bultzatzea amesten dugun Euskal Herria eraikitzeko ezinbestekoa delako".

Gasteizko Jokin

"Lan zintzo, kalitatezkoa eta ona egiten duzuela iruditzen zaidalako".

Ordiziko Xanti

"Lantokian jasotzen dugulako ezagutzen dut ARGIA. Euskal kazetaritza alternatiboaren erreferentzia eta kulturgintzaren ezinbesteko tresna iruditzen zaidalako erabaki dut proiektu hau ekonomikoki bultzatzea".

Gasteizko Aritz

"Euskalduna, independentea eta kritikoa den aldizkaria etxean jasotzeko plazerra izateko".

Ibarrako Unai

FRUITU AROA, HAZI AROA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Fruituak biltzeko sasoia da. Fruituak gozatzeko sasoia da. Horretarako sortzen ditu fruituak landareak: guk, animalioek, goza ditzagun. Fruituak jan eta gogoko bihurtu. Gozamen hori betikotzeko, landare horiek ugalduko ditugu: hazia erein edo berdinak sortzeko txertatu.

Fruituen sasoia hazien sasoia da. Hazia da nagusi fruituan. Landarearen kasta luzatu eta hedatzea da haziaren helburua. Helburu horretarako bidea besterik ez da fruitua.

Jateko erakargarria egiten dute zenbait landarek fruitua; jan behar duen animaliaarentzat ikusteko modukoa egingo du, kolore deigarri jantzia eta probetxuzko mami hazkurritsua duena. Marrubia (*Fragaria vesca*) jan eta azalean dituen haziak ereingo ditugu gorotzetan. Behiak sagarra (*Malus domestica*) jaten duenean haziak bekorotzean ederki estalita geratuko dira. Hagina (*Taxus baccata*) goitik behera pozoitsua da (sustrai, zur, egur, hosto, azal...) baina hostaje berde-beltzaren gainean fruitu gorri-distiratsua eskaintzen dio, atsegin handiz, birigarroari; hark mami gorriaren lika gozoaren apeta beteko du, barruan doan hazi gogorra ez du bere erro-



Batzuetan fruitua babesa da haziarentzat: animaliek hazi horiek jan ez ditzaten, fruitua ez da gutiziagarria. Intxaurra sokolin mamitsu batean bilduta egoten da. Mami horri ez kosk egin, gero; damutuko zara.

tak ehoko baina errotan eta urdaileen azala urratuko zaio, eta gero, zirinarekin batera botatzen duenean, errazago ura hartu eta hozituko da, erneko da.

Beste batzuetan fruitua babesa da haziarentzat. Haziak handiak dira, eta animalientzat gustagarriak. Hazi horiek jan ez ditzaten, fruitua ez da gutiziagarria, ezpainak eta hortzak uxatuko dituen baizik. Gaztainak (*Castanea sativa*) arantzeko morkotsetan babestuta daude. Intxaurra (*Juglans regia*) zokoten edo sokolin mamitsu batean bilduta ematen du ondoak. Mami horri kosk ez egin, gero; damutuko zara.

Beste hazi batzuek ileak dituzte; makalak (*Populus nigra*), txikoria-belarrak

(*Taraxacum officinale*) eta urazak (*Lactuca sativa*) adibidez, haizeak altzoan hartu eta batera eta bestera biribilketan eraman ditzaten. Haizekirri ahulena ere baliatzen iaioenak hegala dituzten haziak dira: lizarrarenak (*Fraxinus excelsior*), ezkienak (*Tilia spp.*), astigarrenak eta iharrenak (*Acer spp.*).

Lapa-belarra (*Arctium minus*) bezalakoek kuskulu tankerako fruituak ematen dituzte adar muturrean, animalia iletsua edo arropaz jantzia aldamenen igaro eta igurtztean, arroparen edo bere ileetan bertan itsatsita urrun garraia ditzan.

Landare amak dio "agur hazia, agur; han edo hemen, betor alaba". ●

Etxeko landareak

Jakoba Errekondoren liburu berria aurkeztuko dugu lehen aldiz herriarren eta hedabideen aurrean.

Urriaren 28an, asteazkena
11:00etan Donostiako Liburutegi Zaharrean.



EKOTARRIKO

EKOIZLEEN SOBERAKINEKIN
EGINDAKO KONTSERBAKGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Zuriñe Vigalondo Otsoa eta bere alaba Maitane Beltrán de Guevara daude Arabako Ekotarriko proiektuaren atzean. Zuhatzu-Kuartangon baratze ekologikoa egiten du Vigalondoren semeak, eta senarrak, berriz, idiak hazten ditu eredu ekologikoan. “Haien ekoizpenetako soberakinak aprobetxatzea zen helburua 2015ean egitasmoa abiatu genuenean”, azaltzen du arabarrak. “Soberakin” horiek sukaldean prestatu eta beirazko ontzietan kontserbak eginez, produktuak merkaturatzeko beste aukera bat izanen zuten horrela.

ZUHATZU-KUARTANGOKO
BAINUETXE ZAHARRA
KONTSERBERA BIHURTURIK

Semeak eta senarrak ekoiztutako produktuak eraldatzeko toki baten faltan ikusi ziren Vigalondo eta alaba, eta udalarekin harremanetan jarri ziren herrian zerbait egin zitekeen aztertzeke. Erabilpenik ez zuen bainuetxe zahar batekin egin zuten topo orduan, eta udalarekin adostasunera iritsi ziren: kontserbak egiteko makinaria lortzeko inbertsioa eginen zuten Ekotarriko kideek, eta, trukean, udalak eraikina erabiltzen utziko zien denbora baterako.

Tresneria eta ekipamendu guztia eskuratu, Markina-Xemeingo eraldatzeko gune batean prozesua nola egin ikasi,



eta etxeko produktuekin jakiak ontziratzen hasi ziren ama-alabak 2015ean: garbantzuak txorixoarekin, haragi-bolak, haragi gisatua, barazki pestoa, tomatea, haurrentzako barazki eta fruitu pototxoak... Hamabost plater ezberdin ontziratzen zituzten hasiera hartan. 2016an azoka batetik bestera mugitu ziren, beraien ontziratutako jaki ekologikoak ezagutzera emateko eta bezeroak lortzeko.

LUR ARABA PROIEKTUA

2017an, berriz, Eusko Jaurlaritzatik eta Europako Funtsetatik diru laguntza jaso zuen Arabako proiektuak, eta ordu arte etxekoek ekoiztutako produktuak soilik eraldatzeko erabili bazuten gunea, inguruko ekoizleei ere zerbitzu hori ematen hasi ziren. “Ekoizleek askotan ez dute baliabide edota ezagutzarik kontserbak

sanitarioki behar diren baimen guztiekin egiteko eta etiketaje guztia egiteko. Laguntza horri esker denbora genuen Arabako hogeita hamar ekoizle baino gehiagori zerbitzu hori eskaintzeko”. Sukaldaria zuten kontratatua, eta ekoizleei beraien “soberakinekin” kontserbak egiten zizkieten.

Vigalondok dio barazkien “garbigune” moduko bat dela Lur Araba proiektua: “Lehen sektoreak iragankorrak diren jakiak sortzen ditu, baina kontserba bihurtuz denbora asko irauten dute. Horregatik diot eskualde bakoitzean horrelako eraldatzeko gune bat egon behar lukeela”. 2019an amaitu zen Lur Araba egitasmoa martxan jartzeko diru laguntza, eta beraz, ez dute ekoizle berriak hartzen Ekotarriko gunean. Hori bai, urte hauetan proiektuan parte hartu dutenekin lanean jarraitzen dute. ●



ANTZERKIAREN HAUSKORTASUNA AGERIAN

**Pandemia
arte eszenikoetan**

Artedramaren
Aulestiko topaketak 2020an.
AINHOA RESANO



COVID-19ak ekarri digun egoera guztiz ari da aldatzen kultura, tartean, artea eta sorkuntza. Neurriak ez dira sektore guztietan berdinak izan eta antzerkiari zauri ugari ireki dio. Komatik esnatzen ari bada ere, arte eszenikoen munduaren barruan denetariko egoerak daude. Antzerkia ez baita zer bait abstraktua, langileek mugitzen dute.

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Adar dezente aztertu beharko lirateke antzerkiaren egungo osasuna aztertzeke. Ez dira berdinak Hego eta Ipar Euskal Herriko baldintzak, ez EAEkoak eta Nafarroakoak ere; ez dira berdinak euskarazko sorkuntzenak eta elebidunenak, ez aktoreenak eta teknikarienak, elkartearenak eta enpresarenak, ikuslearenak eta produktorearenak. Guztiak dira beharrezkoak antzerkiaren biziraupenerako eta gutxiengoak dago bizirik.

GELDITU DA DENA

Gelditu dira sormena, emanaldiak eta diru sarrerak. Hauxe da Miren Tirapuren egoera. Beheko Larraine (Lekunberri) antzerki konpainiako kidea da bera. Konfinamenduak “shockean” utzi du eta jaikitzea kosta zaiola aitortu du. Antzokiak itxi zirenetik ez da berriro oholtzara igo, horrek dakarkion karga emozional eta ekonomikoarekin. Egun langabezia kobratzen ari da: “Emanaldi batzuk nituen eginak eta poltsatxo bat egiten lagundu didate, baina hori amaitu egiten da. Urtebeteko geldialdia asko da profesional batentzat eta oso zaila da beste diru iturririk gabe egoerari aurre egitea”.

Tirapuk Arkaitz Lasarterekin batera sortu zuen konpainia 2016an. Horretatik bizi zen, baina eutsi ahal izateko bide berriak irekitzen ari da aurten, ikasta-

roak ematen, esaterako. Emanaldiak bilatzen ere ari da: “Ematen du sektorea pizten ari dela berriro, baina ez dago batere erraza. Oso optimista izan behar zara egunero indartsu egoteko gaur egungo errealitatearekin. Profesionalki honetaz bizitzeko trabak ikaragarri handiak dira. Muturrera iristen ari gara”.

Udaberrirako behar zuten emanaldiak orain ari dira egiten, udazkenekoekin batera. Dena pilotzeak programazioan eskaintza berriak egiteko aukera mugatzen du, begirada datorren urtera luzatzera behartuta. Beheko Larrainek emanaldi dezente zituen 2020rako gordeta, baina hutsik geratu da bat-batean. *Manifestu bat* antzezlanarekin zeuden biran eta *Bidaietaz* proiektu berria estreinatu berri, bost emanaldi baino ez, konfinamendua baino astebete lehenago egindakoak.

Bidaietaz nahiko berezia dela azaldu du, Lehen Hezkuntzako ikasleengana iristea duela helburu. Ez da antzoki batean egiten eta testuingurua oso gertukoa eta intimoa da, antzerkia “sorpresa” etorriko zaie. Orain lan hau eskoletara nola iritsarazi hausnartzen ari dira: “Ez da une honetan egiteko errazena. Eskoletara sartzen gara dauden muga guztiekin. Koronabirusak justu kontrako tesituran jartzen gaitu: espazio zabaletan, kontaktu eta intimitate gutxiarekin eta ezin partekatu”. Gaiak migrazioa lantzen du batik bat, baina egoki datorkio garaia, ezezagunari beldurra lantzen baitute.

Beldurra aipatu du eskolen arduradunei buruz hizketan jardun denean ere, dena ez baitago artisten esku: “Eskola ere ausartu behar da proposamen hauek onartzera. Kutsatzeko beldurrak eremua erabat babestera daramatza, baina aretoak irekitzen badira, zergatik eskolak ez?”. Erantzun askoren zain daude, hala ere, orain hasi baitira mugitzen.

ETORKIZUNAZ EZIN FIDATU

Negua dator. Inork ez daki zer gertatuko den osasun krisiarekin eta sektore honetan ziurgabetasunera ohituta badaude ere, urduri azaldu dira; ez bereziki osasunagatik: “Ez naiz fidatzen. Berriz ere indar guztiak jarri hau martxan jartzeko eta hilabetera aretoak itxiko dituztela esatea kolpe handia izango da. Hau dena nola kudeatzen ari diren begiratu baino ez dago fidatzeari uzteko”.

Kezka bera da Ander Lipus Artredramako (Gernika) kidearena ere. Sei hilabete egon dira geldirik, inongo diru

“Profesionalki honetaz bizitzeko trabak ikaragarri handiak dira. Muturrera iristen ari gara”



Miren Tirapu
antzerkigilea

sarrerarik gabe. Pandemiara egoera on samarretik etortzeak “salbatu” dituela adierazi du, baina ezin izango diotela bigarren olatu bati eutsi. *Atzerrian lurra garratz* sormen lan berria dute la-bean eta entseguak egiten ari dira orain. Otsailean estreinatuko dutenez ez die hainbeste eragin, beti ere negua bide onetik badoa.

Esku artean zuten beste proiektu batetik, ordea, eskapo egin die. 300 pertsonak parte hartuko zuten ikuskizun erraldoi bat prestatzen ari ziren, Gernikako bonbardaketari buruzkoa: “Oso sartuta geunden hilabetera estreinatzekotan zegoelako. Lan guztia bertan behera geratu zen: musika, antolaketa... Datorren urtean egiteko asmoarekin gaude, baina energia asko xahutu ditugu eta nahiko nekatuta gaude”. Alor ekonomikoaz gain espiritualak ere mugitzen du Lipus: konfinatuta pasa dugun denborak krisian sarrarazi duela kontatu du. Gaixotasuna eta sortu dituen albo kalteak, ardurak, obsesioak eta zalantzak kudeatzea kostako zaigula pentsatzen du, “hauskortasun” egoeran sentitzen baita.

Lehen aldia da sei hilabete pasatzen dituen oholtzara igo gabe eta baikor azaldu da martxan zitutzen proiektuak aktibatzea lortu dutelako: Aulestiko topaketak, *Zaldi urdina* eta *Martin Zalakain* obren birak eta *Atzerrian lurra garratz* obraren entseguak. “Poiz gaude, lanean ari garelako berriro. Ederra da hori. Uste dut teatroa oso espazio aproposa dela gure minez hitz egiteko, nahiz eta beste gai batzuk ukitu”. Ikusleen gertutasuna ere azpimarratu du, Aulestiko topaketetako emanaldietako sarrera guztiak agortu zirela aipatuz; izan edukiera mugatuagatik edo antzerki goseagatik. Azken horrek mugitu du Malen Nicholson lekeitiarra bertako ikastaroe-tan parte hartzera, baita antzezlanak ikustera ere: “Garai hauetan inoiz baino



IXAR MATXAIN

Miren Tirapu antzerkigilearen arabera, konfinamenduan galdutako lanaz gain egoera berrian ere zenbait obra birplanteatu behar izan dituzte, adibidez eskoletan landu nahi zuten antzezlan bat.

gehiago ikusi da antzerkiaren eta kulturaren garrantzia gizartean, denok behar baitugu. Bereziki garai hauetan sentitu dut antzerkiarekiko eta kulturarekiko beharra, gorputzetik, sormenetik nola-bait gauzak adierazi eta sentitzeko”.

Lipusek gogorarazi du kulturaren ez da goela berezko arriskurik, eta baldin badago beste sektoreetan bezainbestekoa dela, ez handiagoa. Oraingo ez da kutsatze kasurik izan antzokietan: “Gogoetarako unea da. Bufoioi esan ziguten: zuek etxean gelditu, ez duzue ezertarako balio. Eta etxean gelditu behar izan dugu”.

EZ DA SOILIK OHOLTZA GAINEKOA

Txartel saltzaileak, aretozainak, managerak, produktoreak, soinu eta argi teknikariak. EAEn 7.000 pertsona inguru dira arte eszeniko, ikuskizun eta ekitaldietako langileak, emanaldi bat aurrera ateratzeko beharrezkoak denak. Beti itzaletan eta orain ere gehiago. Teknikariok sindikatua sortu dute sektore honetako langileen baldintzak borrokatzeko. Lan taldeetan antolatzen dira eta erabakiak asanbladan hartzen dituzte. Batasunik gabeko sektorea eta errekonozitu gabea dela adierazi du bertako kide den Andoni Mendizabalek, eta horrek betidanik izan dituela egoera prekarioan. Orain, gehiago: “%80 jaitsi da kontratazioa, ez dago guretzat

diru laguntza espezifikorik, errekonozimendu gabeko sektorea da, ez dago bateratua, egoera eta profil askokoak gara”.

“Alde batetik langileak babesik gabe geratu direlako laguntzak eskatzen ditugu eta bestalde plan sektorial serio bat exijitzen dugu, hartu behar diren neurriak hartuta diseinatu behar da”, gehitu du. Lehendik bizi zuten egoera prekariotik abiatuta, egungo egoerari erantzun eta etorkizunerako baldintza duinak lortzea dute helburu. Egoera zail honek eman die elkar ezagutzeko eta indarrak batzeko bultzada: “Ilusioa aurkitu dut sindikatuan, egoera txarrean elkartu eta elkar ezagutzeko balio izan digulako. Berraktibazio plan bat behar da”. Gizarteak berak borrokarako beharra duela nabari du Mendizabalek: “Ez bakarrik gure lan baldintzengatik, gizartearen batzuen mesedetan pobretzen ari dela ikusten ari garelako baizik”.

Lehen pausoetariko bat egoera aztertzea izan da, sektorearen beharrak eta profil desberdinak detektatzea. Izan ere, lan mota desberdinak egoteaz gain, kontratazio motak ere desberdinak dira: autonomoak, intermitenteak, finkoak, aretoko teknikariak, taldeetako teknikariak... Adibide bat jartzearen: alor honetan gehienek asteburuetan egiten dutenez lan eta konfinamenduak aste barruan harrapatu zituzenez, profesional

asko ez zeuden kontratatuta eta, hortaz, ezin izan dute laguntzarik eskatu. Egoera desorekatu honetan galduta sentitu dira. Diru laguntzak eskatzerakoan ezin asmatu zein dagokien: “Ez dago gure sektorearentzako pentsatutako laguntzarik. Hori da egoera larrian jartzen gaituena”.

Paradoxikoa oholtzan ikus ez ditzaten janzen duten kolore beltz bera izatea orain ikusgarritasuna eman diena. Manifestazio jendetsu, ikusgarri eta zaratsuak egin dituzte azkenaldian: “Kexuka hasi ginen, kalean hasteko, eta aldarrikapenak zerrendatu genituen gero. Talde oso aktiboa eta inplikaturik gara. Kuriosoa da Eusko Jaurlaritza bera etorri dela gugana, zer nahi dugun galdezka”. Hala ere, “interes, borondate eta gaitasunik gabe” aurkitu ditu instituzioak.

Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontaktuek jarraitzen dute. Urgentziaz laguntzak jaso eta sektorea errekonozitzea eskatzen dute, martxotik kobratu ez dutena kobratzea barne. Dena den, helburu nagusia lortu arte borrokan jarraituko dutela baieztatu du: hitzarmena lortu eta lan baldintzak hobetzea, sektorea bateratzearekin batera. Epe luzera begira ari dira lanean; profilak, beharrak eta gabeziak detektatzen.

KULTURAREN PENTSAERA KAMUSTEN

Kulturgileen eta antzerkigileen diru sarrera nagusiak emanaldietatik datoz, baita diru-laguntzetatik ere. Bietan garrantzitsuak dira 2021era begirako aurrekontuak, kulturari eskainiko zaizkionak. Hain zuzen, hori da Teknikariok sindikatuak Bilboko eta Donostiako Aste Nagusietan egindako manifestazioetan aldarrikatzen zuena: “2020koa mantendu da neurri batean, aurrekontuak egonkorrak zirelako, baina 2021ekoak ikustear daude. Gupidarik ez dute izango gurekin, ziur. Osasungintzan mozketak badaude, atera kontuak”, dio sindikatuko kideak. “Udal askotan partidak kultura ez den beste departamentu batzuetara bideratu dira, gure egoera katastrofikoa eta larria ez balitz bezala. Gu gara lanik eta sarrerarik gabe geratu garenak”.

Bilboko Udalak BilbaoUda deituriko plana aurkeztu du aurten, 150 ekitaldi hartu dituen; jaietan soilik antolatzen da kopuru bera. Bi milioi inguruko aurrekontua izan ohi dute jaiek eta aurten aurrekontu bera eskaini da uda guztira-ko, “kultura zaintzearen izenean”.

“Antzerkia nahiko etxekotua dagoen



Teknikariok sindikatuaren mobilizazioa Bilbon aurtengo Aste Nagusian.

arlo kulturala da”, gaineratu du, “subentzioez bizi dena. Kontzertuak, festak eta musikaren gaueko industria zailagoak dira kontrolatzeko”, iritzi dio Mendizabalek. “Musikaren hegemonia gurea zen. ‘Kaleak gureak dira’ genioen. Herriak mugitzen zituen festak, kontzertu txikiak... Oso gurea, libre, kontraboteretik eraikia zen. Hori guztiz ezabatu nahian ari dira orain, ez dakit honetaz aprobetxatzen ari diren edo honetarako diseinatu dituzten neurri hauek. Festibal handiak ez dira desegin: BBK Live, Kutxa Kultur... Proiektzio internazionala dutenak mantentzen dituzte”.

Tirapuk ere aldrebeskeriaren bat sumatzen du honen guztiaren atzean. Kulturen hartzen diren neurriak beste sektore batzuei ezartzen zaizkienak baino latzagoak direla kexu da, aktibatzea hainbeste kostatu izanaren erantzule eginez: “Kulturari egiten zaion eraso honek, argi eta garbi, zerbait du atzean. Sektorea gero eta gehiago ari dira prekarizatzen. Ez da inoiz babestuta egon, baina egun agerian geratu da kulturagileon egoera nolakoa den. Mahai gaineratuta, gauzak aldatzea espero dut”. Eta sakonago begiratu du: “Euskal Herrian euskal antzerkigintza bigarren mailakoa da, tamalez. Konplexu handia dago euskararekin antzerkian. Bai sortzean, baita ekoiztean ere. Publikoak berak badu gaztelaniarako ohitura. Nola aterako dugu herri bat aurrera euskal antzerkigintza aurrera ateratzeko gai ez bagara?”. Eta instituzio eta laguntzei begira jarri da, Nafarroan zailtasun handiagoak aurkitzen dituela gehituz.

**“Ilusioa aurkitu dut
sindikatuan, egoera
txarrean elkartu eta
elkar ezagutzeko balio izan
digulako. Berraktabazio
plan bat behar da”**



Andoni Mendizabal
Teknikariok sindikatua

Kontatu duenez, bere egoera asko zailtzen du enpresa gisa funtzionatu beharrean elkarte gisa aritzeak, Euskal Herriko beste hamaika talderen pare. Lana egiteak ez, enpresa izateak ematen omen du profesionalaren definizioa instituzioen begietara eta hori da behar dena diru laguntza jasotzeko, baita emandakia lortzeko ere: “Elkarteentzat badaude diru laguntzak, baina askoz ere murriztagoak dira. Sistema horrek enpresa babesten du eta zama ekonomiko bat ekartzeaz gain hainbat baldintza betetzea ere badakar”. Eta hori baino, filosofia oso bat: “Kultura egiteko enpresa behar duzu izan? Denak izan behar al gara enpresari? Kontraesan handia da hori. Kulturek eta enpresak ez dute bat egiten, ez behintzat nik ulertzen dudana. Oso nahasita dago dena eta hor atzean dagoen guztia”. ●

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

INAKI BEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



LIBURUA

Laugarren protagonista da Xala



XALA

CYNTHIA OZICK
ITZULTZAILEA: KORO NAVARRO
PASAZAITE, 2017

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Bi testu barnebiltzen dituen liburua da *Xala*. Lehenengoak liburuari izenburua ematen dio eta 1980an argitaratu zen lehenengoz. Sei orrialdetan kontatzen digu preso juduen hiru eguneko martxa. Eta ezaguna zaigun istorioa baldin bada ere, muga etiko eta humano guztiak gainditzen dituen egoera baten salaketa egiten du tonu gordin eta zuzena erabiliz. Kontakizun bikaina da, izan ere, indar handiko elementuak aukeratzen jakin du autoreak eta orrialde gutxitan inpaktu handia sortzeko gaitasuna dutenak. Martxa horren parte izango dira Rosa, bere iloba Stella eta xal batean batuta daraman hilabete gutxiko alaba, Magda. Pentsa genezake protagonistak hiru direla. Baina xalak haurra elikatze duen gaitasunak, babesteko


eta berotzeko funtzioak eta psikologikoki –batez ere Rosari, baina guztiei– ematen dien segurtasunak laugarren protagonista egiten du.

Hilekoa ere galdu dute gosearen, nekearen, logurearen eta *shock* emozionalaren ondorioz. Izugarrikeria ilustratzeko adibide eta pasarte garbi bat.

Bigarren testua nobela motz bat da. 1983an argitaratu bazen ere, *Xala* kontakizunaren jarraipen gisa irakur dezakegu. Rosa Miamin dago gerra amaitu zenetik eta urte batzuen ondoren. Xala gordea du oraindik eta ilobarekin eta alabarekin eskutitz bidez komunikatzen da. Hemen ere orrialde gutxitan kontu sakon askoren inguruan hausnartzeko aukera irekitzen du: ama hizkuntza, heriotza-esparrua bezalako esperientzia

bat bizitzeak uzten duen ondorio psikologikoa, (sa)mina, prekaritatea, noraeza, arrazismoa, patriarkatua... Pertsonaien harremanen bitartez harilkatuko ditu gai horiek guztiak Cynthia Ozick-ek.

1989an bi testuak elkarrekin argitaratu zituzten bezala argitaratu zituen Pasazaitek 2017an. Koro Navarro Etxeberriaren lumatik pasatako itzulpena da. Sarri irakurri dut itzultzea berri-daztea dela, eta Koro Navarrori ere zorionak, itzulpen zoragarria da-eta *Xala*. Cynthia Ozicken lana euskarara itzultzen zen lehenengo aldia zen, eta momentuz bakarra. Kritiken hemerrotekan bi kritika baino ez ditu. Honekin hiru-garrena. Txikia eta laburra izanagatik irakurketa intentsu eta benetan aberasgarria. ●



MUSIKA

Ravelen ametsak talentu handi baten eskuetan

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Maurice Ravelen distira eta jazzaren erritmoak saio berean batzeak erakargarritasun berezia zuen, zalantzarik gabe. Baina emaitza entzun ondoren, non Marco Mezquida Ziburuko musikaren mundu onirikoan barneratzen den, eta bere musika beste eskema batzuetara eramaten duen, bere esentzia galdu gabe, gauza bakarra esan dezakegu: bikain.

Marco Mezquida pianista mallorcarrak 32 urte ditu, eta izugarrizko ahalmena du mota desberdinetako proiektuak aurrera eramateko. Bere taldeak zuzentzen ditu, irakaslea eta konpositorea da, eta talentu izugarria du, gero eta goraipatuagoa.

Oraingo honetan, bera bezalako bi musikari gazte eta ausartekin batera, (Martín Meléndez kubatarra txeloa eta Aleix Tobías bateria eta perkusio jotzaile kataluniarra) Ravelen ametsak eta gakoak deszifratzen saiatu da, eta Ravelek berak ezagutzen zuen eta maitatzen zuen musika batera, jazzera, eraman ditu.

Ravelek 1920ko hamarkadaren amaierako jazz ezagutu zuen Amerikako Estatu Batuetan bira luze batean ibili zenean, eta musika horren ñabardurak gehitu zizkien bere konposizio milimetrikotik eta preziosistek. Marco Mezquidak eta bere kideek hori guztia garatu dute *Ravel's dreams* izeneko ikuskizunean, non fintasuna eta pasioa barra-barra eskaintzen duten.

Konpositorearen pasarte zoragarriak entzun ahal izan genituen musikari hauen ikuspegiaren bidez eta, hala, esentzia ravelarrak bere horretan jarraitzen zuen, baina osotasunak zapore berri

eta zertxobait apurtzailea zuen, nahiz eta errespetu handiz egina izan.

Sarrera zoragarri batekin hasi ziren, non *Jeux d'eau* obraren esaldiak entzun ahal izan genituen. Ravelen pianorako lehen lanetako bat da, eta haren tinbrika berezia ondo islatu zen Mezquidaren lanean. Ondoren, Fa maiorreko laukotearen berrikuspen aske eta indartsua interpretatu zuten, non *Ma mère l'Oye* lau eskutako pianorako lan preziatuaren zatitxo batzuk integratu zituzten. Emaitza harmonikoa eta tinbrikoa liluragarria izan zen.

Jarraian eskaini zituzten ikuspegi onirikoak ere, *Pavane pour une infante défunte*, *Le tombeau de Couperin*, Sol maiorreko kontzertuaren bigarren mugimendua edo *Bolero* ezinbestekoa, erres-

petu, gustu bikain eta exekuzio paregabe berarekin tratatu zituzten hiru artistek.

Sorpresak ere izan ziren. Ravel eta jazzaren artean integratuta, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* abestiaren bertsio pianistiko ederra entzun genuen.

Mezquidak zeresan handia emango du etorkizunean. Adi egongo gara. ●

RAVEL'S DREAMS

MARCO MEZQUIDA (PIANO),
MARTÍN MELÉNDEZ (TXELOA),
ALEIX TOBÍAS (PERKUSIOA).

ARRIAGA ANTZOKIA (BILBO), URRIAK 6

"Ravel's dreams" Arriaga Antzokiaren eta Bilbaina Jazz Klubaren arteko lankidetzakontzertua izan zen.



E. MORENO ESQUIBEL / ARRIAGA ANTZOKIA



Miranderen atmosfera musikala

 AMETS ARANGUREN

Bete egin zuten Antzoki Zaharra igande arratsaldean Elena Setiének, Xabier Erkiziak eta Grande Days taldeak. Eta, haiekin batera, Miranderen poemek. *Mirande* izenez argitaratu dute diskoa aurten Forbidden Colours disketxearen zigilupean. Pasa den mendeko Jon Mirande poeta zuberotarraren sei poema musikatu eskaintzen dizkigute.

Antzokira sartu bezain pronto lehenengo sorpresa: musika tresnak baino beste tresna batzuk nagusi. Pare bat gitarra, baxu bat, perkusioa eta teklatuaz gain, pedalera bana soka instrumentuek eta bizpahiru ordenagailu. “Hertzainakek edo Zaramak Miranderen poemekin eginikotik urruti egonen da hauen proposamena”, pentsatu nuen segituan.

Soinu elektronikoak oso presente eta irudi proiektatuak musikarien atzeko pantailan. Dena ilun. Poema batzuen hitzei melodia jarri diete, errezipatatu di-

tuzte beste zenbait. Sortu duten mundu paralelo horren barnean dena. Setiének ahots nagusia eramanagatik, duo ederra sortzen dute Erkiziak eta berak elkarrekin kantatzen dutenetan. Lesakarraren ahots grabe eta sakona oinarri ezinhobea da kantari donostiarraren kristalezko boz gardenarendako. Grande Days taldeko kideak ez dira atzean geratu, eta haien instrumentuak jotzeko modu konbentzionaletik haratago, puak ordezkatu dituzte zenbait kantatan bestelako tresnekin: tinbalak jotzeko baketak, biolin edo txeloaren arkua edota bihurkinak. Eta horrela lortzen dute guk itsasoa, haizea eta autoak entzutea.

Begiak itxi eta sortzen duten atmosferan flotatzen ari zarelarik, ia ezinezkoa da jakiten zein instrumentu ari den ekaitzaren soinua egiten, zein kaioarena eta zein melodia nagusia. Zuzenekoaren xarma. Behin eta berriz errepikatzen diren irudiak ikusten ditugu

proiektaturik: bi eskuineko begi, panpin buruak, bururik gabeko gizon traje-dunak, begiak, soinekoz jantziriko neskatilen hankak, begiak eta begiak.

Zalantzati dago publikoa, txalotu ala ez. Min ematen baitu sorturiko atmosfera ukiezin eta hauskorra txaloz apurtzeak. Bakarrik bi edo hiru kantatik behin ausartu gara txalo egiten.

Instrumentuen, ordenagailuekin bidaliriko efektuen eta ahotsen enpastatzea hain da txukuna, kosta egiten zaigula bereizten zer den gitarrak eta zer ahotsak egiten dutena. Sei kideak bat dira.



Ordubetera heldu ez den kontzertua bis bitxiarekin itxi du Elena Setiének. Kantatu eta momentuan bertan ahotsa hirukoizten duen efektua jarrita interpretatu du *Igelak* poemaren bukaera, eta irrintzi batekin eman dio bukaera kontzertuari, nire bizitzan entzun dudana lehenengo irrintzi hirukoiztua.

Ez dakit zein kontzertu mota espero nuen, baina ez nuen hau espero. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN
ETA ALBERTO BARANDIARANEEK, ESANDAKO ESALDI
BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE,
LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			5	4		8	9	
				6			3	2
6					3			
	7			9	1			
8	9		3		2		4	5
			4	5			1	
			8					9
7	4			2				
	2	8		1	5			

ERRAZA


		8	4	5		6		
2								
	5	3	1			9		
		9		8		7		3
			7		9			
7		6		4		8		
		4			6	1	8	
								6
		5		7	4	2		

ZALIA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Izan ezik. 2. Moztu. 3. Portuan. 4. Nardo.
5. Likidoak edukitzeko ontziak.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI
BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI,
HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				A	R	D	I	A
2	B				R	D	E	A
3	P	A				L	D	I
4	E	R	R				T	U
5	A	R	T	I				A
6	A	D	E	I	T			

EBAZPENAK

9	2	8	7	1	5	3	6	4
7	4	3	9	2	6	1	5	8
1	6	5	8	3	4	7	2	9
2	3	6	4	5	8	9	1	7
8	9	1	3	7	2	6	4	5
5	7	4	6	9	1	2	8	3
3	5	7	4	6	9	1	2	8
6	5	3	9	2	8	7	4	1
4	7	1	6	9	5	3	2	8
9	7	8	4	5	3	6	1	2

1	6	5	8	7	4	2	3	9
8	9	7	3	1	2	5	4	6
3	2	4	5	9	6	1	8	7
7	3	6	2	4	1	8	9	5
4	1	9	6	8	5	7	2	3
5	8	2	7	3	9	4	6	1
1	9	6	8	5	7	2	3	4
6	5	3	1	2	8	9	7	4
2	4	1	9	6	7	3	5	8
9	7	8	4	5	3	6	1	2

ZALIA

PUZZLEA: "BETI AIPATZEN DA
TRANSMISIOAREN GARRANTZIA, ETA
AIPATZEN DA HEDABIDEEN LANA EDO
KULTUR ERAGILEENA, BAINA HEZKUNTZAZ
EZ DA HAINBESTE HITZ EGITEN."
5XS: 1. LEKAT, 2. ERBAKI, 3. KAIAN,
4. AKARA, 5. TINAK.
HIZKI BERAK: 1. AUSARDIA, 2. BASURDEA,
3. PAUSALDI, 4. ERRAUSTU, 5. ARTISUA,
6. ADEITSUA.

Kati Leatxe Aristu

HERRIAK KULTURAZ BETE



HERRITIK HIRIRA, ETA BERRIZ HERRIRA

“Longidako Ekain jaio nintzen. Gure amak zazpi seme-alaba zituen, eta ikas zezaten nahi zuen, baina herrietan ezin zen. Horregatik, Iruñean urte askoz bizi izan ginen, baina bagenekien itzuliko ginela Agoitzera, hangoak baitziren gurasoak. Arlo askotan aritu naiz, gizarte langintzan, euskararen arloan, udal hainbatetan, eta enpresa pribatu batzuetan. Azkenean, iritsi naiz nik asmatzen ditudan proiektuetatik bizitzera. Karekin Kultura da nire proiektua: lan egiten dut inguruko herriei, ideiak ematen, udal txikiek ideiak behar dituztelako. Herrian bizitzea baloratzen dut, eta oraindik harritzen nau hogei minutura dagoen Iruñean, galdetzen didatenean zergatik bizi naizen Agoitzen. Hiria eta herrien arteko arrakala fiktizioa da, imaginarioa, ez da benetazkoa”.

“Kulturak lagundu dezake herrian pozago bizitzen”

Herrien despokatzea zoritxarreko errealitatea da Nafarroan; abiadura handian husten doa landa eremua. Kati Leatxe (Longida, 1966) kulturaren ikuspegitik begiratu dio fenomenoari, sinisten baitu kulturak lagundu dezakeela hustutzea moteltzen. Herrietan ongi bizitzea bada helburu, kulturak horretan zer esana duela uste du, eta irudimenez eta ausardiaz jokatzeko unea dela dio. Nabarralde Fundazioaren *Herrigabetuak* jardunaldietan aurkeztu berri du bere ikuspegia, Iruñean.

✂ ANDER PEREZ 📺 JOSU SANTESTEBAN

Biztanleez gain, zer galtzen dute herriek despokatzean?

Dena. Zer galduko luke itsasoak ura galduko balu? Lehenbizi olatuak, gero arrainak, koralak, gatza... Ez gara ohartzen galtzen ari garenaz, eta egun batean ez dago itsasorik. Ez dira bakarrik harriak, elizak, hizkuntzak, ohiturak... Bizitza ari gara galtzen, lurrarekin dugun kontaktua, lurra bera delako bizitza ematen diguna. Dena homogeneizatzeko bidean alde batera uzten ditugun gauza horiek guztiak dira bizitza.

Kulturak balio du despokatzeari aurre egiteko?

Kulturak paper eraldatzailea du. Ez gaitu salbatuko, baina denok behar dugu bizitzeko. Herriek beraiek erabaki behar dituzte aplikatu beharreko politikak, herriak izan behar dira protagonista. Gure burua berrasmatea dagokigu, sortzaileak izatea. Kultur programak toki guztietara eramane behar dira, ezin dira popultazioaren arabera edota udal bakoitzak duen diruaren arabera erabakiak hartu. Bost pertsonako herri bat zaindu

beharreko altxorra da, hiriburu bateko 10.000 biztanleko auzo bat bezainbeste.

Herrikoa izateak oso estigma ezkorra izan du azken hamarkadetan. Bizitzan zerbait izateko, hirira joan behar zen. Horrek min handia eman digu. Sinetsi behar dugu hori ez dela horrela, eta proaktibo izatea dagokigula, gure balioa defendatzeko. Autoestimua indartzeak lagunduko du egoerari bira ematen.

Eta kulturak hobetu dezake autoestimua hori.

Nola lagundu dezake kulturak herrian ongi bizitzen? Batetik, zerbitzuak behar dira –liburutegia, kultur etxea, antzokia–, eta bestetik, parte hartzeko aukera eman behar zaie herritarrei. Herrietan baditugu abesbatzak, kontzertuak... baina badirudi kulturarekin lotutako gauza garrantzitsuak hirian geratzen direla. Kulturak lagundu dezake herrian pozago bizitzen. Eta lagundu beharko luke herrian bizi denari ikustarazten ez duela ezer galtzen, eta ez dagoela arrazoirik handik ateratzeko.



"BETI ESATEN DUGU HERRIETAN EZ DUGULA DEUS, BAINA KONTUA DA AUSARTAK IZATEA, ETA ASKOTAN EZ GARA. BALIABIDEAK BADITUGU, IRUDIMENA DA LANDU BEHAR DUGUNA".

Bada masa kritiko edo azpiegitura nahikorik horretarako?

Kontua ez da herri guztietan kultur etxe fisikoa izatea, baizik eta kultur etxearen ekimena zabaltzea. Eskualdekako zerbitzuak antolatu behar dira. Toki guztietan ezin da liburutegirik izan, baina liburutegiaren eragina zabaltu daiteke. Aurizberriko liburutegia, adibidez, atez ate joaten da liburuak eramaten. Irudimena behar da. Baliabideak ere bai, noski, baina horretarako daude administrazioa eta erakunde pribatuak. Elkarren arteko bidea jorratu behar da.

Zer motatako esperientziak daude martxan arlo horretan?

Herrietan jende asko ari da lanean kulturaren eta ondarearen alde. Nik esperientzia xumeak ditut gustuko. Oso polita eta interesgarria da Abaurregainako hilarrien museoarena. Nafarroako Gobernuak badu Landarte programa ere, jendeak oso ongi hartu duena, edota "Oinak hodeietan" egitasmoa. Badago Antartika Kultur Container ere, lanean ari dena bai Pirinioan, Eutsi Pirinioa elkartearekin, eta bai Larragan, Gardatxo elkartearekin. Zerbait mugit-

tzen ari da, sormen handiko proiektuak dira.

Kultur turismoarena bada bide bat, baina turismoa, askotan, aukera bezainbeste izaten da arrisku ere.

Nik neuk, turismoa egiten dudanean, lurralde ezberdinak ezagutu nahi izaten ditut, herri txikiak, paisaia, natura. Baina badakit herri batzuetan kexu direla, turistek, askotan, ez dugulako errespeturik, dena desegiten dugulako, eta hori ez delako naturaz gozatzea, baizik eta kontsumitzea. Denean bezala, oreka bilatu beharko litzateke. Zer baliabide dauzkagu herrietan bizitzeko laguntzeko, eta aldi berean, nola egingo dugu horrek bertakoa ez zapaltzeko. Oreka hori herrietako jendeak erabaki beharko luke. Baina alderdi bakar batek ezin du dena salbatu. Egitasmo politikak daude, eta nik diseinatzen ditut, eta saldu. Baina kontu handiz ibiltzen naiz inor salbatuko dutela esaterakoan.

Zer baliabide dauzkate herriek kultura egiteko?

Bidankozen bada esperientzia polit bat, *Pirineos la Nuit* izenekoa. Han zeruaren garbitasuna frogatzen duen izendapena

lortu zuten, izarrak behatzeko. Pentsa zer gauza erraza: zer argi kutsadura eskasa dugun gure herrietan, eta nola egin daitekeen hortik baliabide bat. Beran, Tramontana egitasmoan, inguruan ditugun soinuak bildu zituzten. Beti esaten dugu herrietan ez dugula deus, baina kontua da ausartak izatea, eta askotan ez gara. Baliabideak baditugu, irudimena da landu behar duguna.

Emakumearen papera gakotzat duzu.

Gauza jakina da ondarearen transmisioa emakumeak egin duela. Gaur egun ere, emakumeek lideratu dute landa turismoa bidea. Haiek dira, orokorrean, landetxeak kalitatez kudeatu eta bisitariak hartzen dituztenak. Kultur eremuan ere badira esperientzia politikak; adibidez, Maddi Barber zinemagilearena, Itoizko urtegiak hondoratutako herrien suntsipena irudiekin eta poesiarekin landu dituen. Edota Marga Gutierrezek zuzendutako *Ekilibrio* egitasmoa, besteak beste. Emakume askorekin elkartu izan naiz halako egitasmoetan: alkateak, kultur kudeatzaileak, irakasleak, gizarte zerbitzuetako langileak... Kulturaren emakumeak egiten duen hori ikusarazi behar da. ●



Bertso txapelketak eta Korrika atzeratu ostean, euskal emozioen merkatua lehertzeaz dagoela diote ekonomialariek



Bertso txapelketak eta Korrika atzeratu egingo dituztela argitara eman ondoren, zenbait ekonomialarik ohartarazi dute burbuila-efektua sortzen ari dela euskal emozioen merkatuan eta egoerari erre-mediorik jartzen ez bazaio ondorioak tragikoak izan daitezkeela. "Egoera normaletan, euskal emozioen merkatuak fluxu iraunkorra izaten du ohiko kanaletatik -Twitter, Argia, manifestazioak eta elkarretaratzeak..., baina Barne Emozio Gordinaren portzentaje handi bat gertakari

nazionalen bidez jartzen da zirkulazioan. Eta orain, bolada batez BEC bete ezingo dela jakinda eta Korrikarik ez dela egingo, kapital emozionalaren soberakin gehiegi pilatzen ari dira euskaldun autokontzienteenak", azaldu du Joseba Hastings-Balantzageti ekonomia irakasleak. "Kontuan izan Euskal Herria superpotentzia emozionala dela", gaineratu du eta honakoa erantsi: "Egoera potentzialki arriskutsuan sartzen ari gara emozio gehiegi biltegietan gordetzen ari garelako". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Okupazioaren alde?



Herrena zenbakitu



Onddo agerraldiak basoan konfinatzera eramanez hainbat goierritar

"Kabezerako medikuak agindu digu Otzaurteko paraje hauetan geratzeko gau eta egun", kontatu digu Mikel Izagirre gabiriarrak. "Total, lehenago ere tribu-bizitza egiten ari ginen; ehiza denboraldie, badakizu. Bezperan puestoen zozketa, toterrenok hartu eta goizean goiz mendira, bi uso bota, hamaiketakoak, argazkiak watsapez partekatu... dena gizon* giro jatorrean. Orain, onddo agerraldiarekin, medikuak esan digu lasai geratzeko ba-

soan, ez dela komeni kanpotar asintomatikoak etorri eta haritz eta pagadi guztiak garbitzea. Eta hemen gaude, laugarren puestoan kieto, laguna zerura begira eta ni behera, badaezpada ere, inor inguruko perretxikuak lapurtzeko intentzioarekin baldin badator, tiro egiteko gertu. Hamar egun pasako ditugu hemen; etxera uzta ederrarekin bueltatzea espero dugu, Otzaurten deus ere ez dagoela dioten negazionisten zoritxarrerako". ●



**Hiru kolore
aukeran:**
grisa, arrosa
eta berdea.

**Modelo estua eta
zabala aukeran**
kolore guztietan.

%100 kotoi organikoa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat
bultzatzen ari gara. Beraz, jatea
bihur dezagun egunean hiru bider
egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Kamiseta berriak!

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

19,5€

Kamiseta erositak, 2€-ko
ekarpena egingo diozu
agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.



euskarabildua

TEKNOLOGIA + KOMUNIKAZIOA

#9 . 2020 edizioa

TEKNOLOGIA BURUJABETZA

DATUEN IZURRIA



ZER ARI DA GERTATZEN GURE PRIBATUTASUNAREKIN PANDEMIA GARAIAN?

URRIAK 29, osteguna · San Telmo Museoa (Donostia) · 09:00-14:00

IZEN-EMATEA: www.euskarabildua.eus

Antolatzaileak



Babesleak

